# ttipi ttapa

310

2001eko irailak 20 • XXI. urtea




## Jakes Casaubon ondarea ikertzen

04

Senpereko ola eta meatzeei buruz egin duen lanaren ondorioz, herri horretan zortzi ola eta hiru meatze izan direla uste du Izuran sortutako ikerlariak.



## Areso ez da Europan izango

06

Nazioarteko Sokatira Federazioak ez du Euskal Herria nazio gisa onartu eta Areso, baldintza horietan, ez da Europako txapelketan izango.



03

# Omenaldien ordua Jabier Larralde Arizkungo txistulariarentzat

MUEBLES AMETS

Sarrera BERAtik da
*Alkaiagako industrialdean*
*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*
**31789 LESAKA**
*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*




Sukaldeak
Egongelak
Logelak
Bainugelak





4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko

*Larunbat arratsaldetan irekia*



## DATUAK...

- Jabier Larralde duela 74 urte sortu zen Arizkungo Enekonean. Egun Etxeberrian bizi da.

- Gazta-gaztetik txistua jotzen hasi zen Mauricio Elizalde eta Felix Iriarterekin batera. Baztango musika eta folklorea ikertzen ere aritu da, semearekin batera.

- San Migel bezperan Arkupeak elkartearen omenaldia jasoko du. Horretaz gain, «El Irunés» aldizkariak Urteko Bidasotarra izendatu du.



Karmele TOLOSA

**Jabier LARRALDE** *Arizkungo txistularia*

# «Dantzak eta folklorea ondorengoei erakusteko lan handia egin dugu»

Aitor AROTZENA

**Noiz hasi zinen txistua jotzen?**
1944an hasi nintzen txistua jotzen, 18 urterekin. Orduan Felix atabalaria nerekin hasi zen. Amaiurren kontrata bat egin genuen igandero jotzeko. Igandero bazen soinua eta dantza laxoa egiten zen denbora heketan. Urteko 70 duroko kontrata genuen. Zazpi urte egin genituen elkarrekin, baina ni Ameriketara gan nintzen eta bortz urte egin nituen artzain Californian. Baina han ere txistua nirekin atxeman nuen denbora pasatzeko... badakizu artzainak lan handiak baditu, baina baita denbora ere. Ameriketatik bueltatu eta Maurizio zenarekin aunitz jo dut, bestaz besta.

**Lehendik bazen musikaririk zure etxean?**
Nik ez dut ezagutu, baina ama zenaren aita txistularia zen, hemen zegoen hoberenxkoenetatik. Denbora hetan bera omen zen Baztangoizaldeko txistulari onena. Beheitiko herrietan Dorremotz izenekoa on xamarra zen. Biak aritzen ziren. Geroztik semeari ere erakutsi diot.

> «1944an Amaiurren igandero jotzeko kontrata egin genuen Felix atabalariak eta biok, urteko 70 duro kobratuz»

**Dantza erakasle ere izan zara...**
Maurizio adinean bazaien eta hasi nintzen erakusten, dantza talde bat plantatuta. Ezagutu ginuen bazirela Baztanen galdutako dantzak eta soinuak. Inbestigazioan hasi nintzen, aunitz jenderekin solas eginez, artxiboak begiratuz, Baionan ere miatu ginuen dena... egiten ahal genuen guzia egiten hasi ginen. Semea ere 16 urterekin hasi zitzaidan laguntzen eta bien artean gauza aunitz bildu ditugu: partiturak, duela dozena bat egin genuen disko bat ere. Diskoarekin batera albuma egin genuen, gan den mendeko dantzak esku batetik bertzera nola etorri ziren erakutsiz, argazki ederrekin eta aunitz esplikazionerekin. Geroztik bertze gauza aunitz bilduak dira eta badut uste hauek ere egunen batean argitaratuko direla.

**Maurizio eta Felixekin aunitz jo duzu. Zein oroitzapen gorde duzu?**
Hiruak ibili izan gara aunitz Gipuzkoa, Bizkaia eta Iparraldean. Aldika zenbait egunetarako joaten ginen Baiona, Senpere, Kanbo, Baigorrira... Xubero aldean ere noizbait joan gara, baina gutti. Holaxe denboraz ibili gara elgarrekin.

**Txistua gero eta gehiago aditzen da kontzertu handietan ere. Lekua badu tresna honek orkestetan?**
Kontzertuak ongi daude, ni gustora egoten naiz aditzen, baina herriko besteko dantzetan ere behar-beharrezkoa da txistua. Biak ongi dira.

**Orain omenaldien txanda ailegatu zaizu. Kontent izanen zara...**
Ez nuen honelakorik espero. Bada jendea gauzak estimatzen dituena, doike. Donostiatik ere gaztigatu zidaten aspaldiko ezagun batzuek zerbait egiteko idea zutela, Mauricio zenari eta bioi Senperen adituta. Nik aspaldi atzenduak nituen gauzak dira, baina haiek buruan atxiki dute. Lekuonak ere zerbait egitea pentsatu zuen eta Urteko Bidasotarra egin nau. Eta orain Arkupeak elkartea...



Legazpiako Mirandaolan ikus daiteke olek nola lan egiten zuten.

**Izurtarra bada ere sortzez, Jakes Casaubon Senperen luzaz egona da: lehenik oihan zaina, eta ondotik arrainetako nutribiologo gisa. Gure bazterrez eta gure Historioaz betidanik axolatu baita bere jakinmina urtez urte saiatu da betetzen, sekulan asetu gabe. Aldi huntan, Senpereko ola eta meatzez bere argitasunak galdegin dizkiogu. Gai honi buruz gehiago jakiteko, bere ustez «interesgarria litzateke, lehenik paper zaharrak ikertzea, eta gero, ibiltzea eskuin eta ezker, jakinez guti gora behera zer lekutan aurki ditezkeen meatzeak eta ola aztarnak». Berekin izandako elkarrizketaren laburpena duzue hau.**

## SENPEREKO ONTASUNA AZTERTU DU IKERLARIAK

# Zortzi ola eta hiru meatze izan zituela uste du Jakes Casaubon-ek

**Maddi Lorentxa ETXEBERRI**

Senperen hainbat ola aurkitzea berezia denetz, ez daki Jakes Casaubon-ek: *«hemengo olak burdin olak baitira, gehienetan meategietarik hurbil, burdin harria den tokitik hurbil daude. Ainhoan eta Ezpeletan ere ola ainitz bada zeren eta burdin harri ainitz baita. Senperen, bada burdin harria bainan ez du hurbiltzekorik ere Ainhoako meategien aberastasunera. Senperen, xiloka batzutan atxematen da burdin harria eta badira holako zilo haundiak ezker eta eskuin. Kasik segur naiz, zeren eta miaketak egin ditut, azaleko burdin harria zutela xekatzen toki horietan. Geroztik, zilo batzu tapatuak izan dira, bertze batzu urak hartuak. Bertze arrazoinetarik bat da: Senpere leku ordoki, ederra, zabala da. Beti errexago da leku ordoki batean zerbaiten muntatzea toki malkartsuan baino! Ur ainitz ere bada Senperen: Urdazuri, eta bertze erreka piskor frango badira. Gainera, olen kurriarazteko egur edo ikatza asko behar zuten, eta Senpere oihantsua zen».*

### SENPEREKO OLAK BANAN BANA

**Xuaxtiko Ola:** Ola etxearen pekoaldean, aintzira bada. D'Elbee jaunak horko presa antolarazi du. 1880 urtean bi langile baziren, Franche Comte aldetik etorriak. Burdin harria hortarat jinarazten zuten, tresnen egiteko. Zeharrola hunek, XVIII. mendetik XIX. mende bukaera arte iraun du.

**Olhazabala edo Basarungo ola:** Basarungo errekatik goiti joan eta, aintzira baten aztarnak atxematen dira. Ur peza bat bada ur hegian, pezoinez hetsia: Olhazabala du izena. Hori zen lehen lehen ola, Xuaxtikoa baino zaharragoa. XVI eta XVIII. mendeen artean iraun zuen zeharrolak.

**Olhagaraia (?):** Elbarrun auzoan, ez da frogarik, ez eta aztarnarik ere, baina izenak hori dio. Uretik urrun, haizeola zitekeen, XV-XVI. mendean.

**Irioinetxeko ola (?):** Ibarrunen, Iriointxenearen gaineko aldean, pezoinak kausitzen dira, behar bada duela 2000 urte ingurukoak. Pezoinez inguratua den sekulako lur peza hau, hetsia izana da. Zertarako? Pezoinen ezkinean, bada gaitzeko ziloa. Hor kokatzen zen, ola haundi bat. Urik ez delakoan, zeharrola zitekeen. Hor kausitzen dira, oraino, burdin erre

eta zepa bakar batzu, hondarkinak.

**Branddako ola:** jauregi ondoan hiru labe ttiki aurkitu nituen, hiru haize ola, hertsiak, lehen modakoak. Lekuari Brandda ematen zioten izena.

**Olhaso (?):** Han ez dut deusik aurkitu, zilo haundi bat baizik ez.

**Kontieneko Ola (?):** Olha auzoko Kontienean zen zehar ola, etxea eraiki aintzin. Senpereko armarrietan, kobrezko bertzak edo panderuak agertzen dira. Aspaldidanik, errana da, Olha auzoko ola hartan, berzkinak edo panderu egileak bazirela... Han ote zuten panderu horiek egiten? XV.mendekotz, jadanik, ola hau hor zen.

**Arroztegi Zaharreko ola (?):** Arrotegi zaharraren parean, baziren bi animaleko muino, belarrez estaliak. Egun batez, Arrotegi zaharreko nausiak muino horiek bota zituen. Hor ohartu ginen, burdin ondarkinak edo zepak zirela bi meta horietan. Ola hori ez zen batere ezagutua. Dantxarinean hiru ola badira, eta paperetan, laugarren bat aipu da: Arrugos izenekoa. Arrugos, Arrugoztegi, Arrotegi... elgarri hurbil dira! Nire ustez, hori da aurkitzen ez zuten ola hori. Arrugoztegi erraten ziotena XV. mendean.

### Meatzeak ere baziren?

Casaubonek dioenez, meatzerik izan zen segurtamenik ez dago: «*badire zilo batzu edo meategi aztarnak. Ibarrarteko azpian, ziloska bat bada. Han atxeman nuen burdin harria frango ona. Ez ninteke harrituko, hor balitz lurpeko meatze ttipi bat.Amotzen, Tontoloko errekatik goiti joan eta, kasko kaskoan kasik harpe zilo bat bada. Harpe hau naturala den ala ez, ez dautzut erraten ahal. Burdin harria atxeman dute, labeen hazteko.Hirugarrena, segurra da, eta egiazko meatzea da: Xerrendako gainean zen, paper zaharretan agertzen den bezela*».

## ZEHAR OLAK ETA HAIZE OLAK

Hastapenean, erromanoen garaitik bospasei mende berantago arte, mendietan egiten zituzten labeak. Harri edo erreztasunik ez bazen, ziloka batean burdin harria biltzen zuten. Gero, haitz batean, ziloskak egin eta, labea hor berean egiten zuten. Berantago, egin molde hori debekatu zuten, desmasi gogorrak egiten baitzituen arboletan.

Ondotik hasi ziren harrizko labeska batzuen egiten. Azpitik egiten zuten ziloa, eta labea egurrez asetzen. Gainetik ematen zuten burdin harria eta sahetsetik sua pizten zioten. Haize ainitz behar zen. Horregatik ziloak egiten zituzten bazterretik. Ola horiek **haize olak** deitzen zituzten. XI. mendetik XV-XVI. mende arte iraun dute.

Alabainan, haize olarekin, burdin harria ez zen behar zen bezela urtzen, suak ez baitzuen aski indar. Gelditzen ziren hondarkinetan bazen oraino baliatzeko burdin ainitz. Bainan garai hartan beren beharretako egiten zuten burdina eta ez saltzeko!

XVI. mendetik goiti hasi ziren labeak bertze molde batean egiten, handi eta zabalagoak. Lehenik, ura erabiltzen zuten burdin harria garbitzeko. Gero, bazuten adorra paladun haundi bat, uraren indarrak itzularazten zuena, lehengo errotetan bezala. Horrek bazuen mailu bat, burdin harria ongi xehatzeko, erre aintzin. Labea, azpitik egurrez ase eta burdin harriz betetzen zuten. Burdin harria osoki urtarazten ahal zuten. Gero altzairua egiteko, ura airearekin behar zuten nahasi. Hortarako, hodi lodi bat baliatzen zuten, nahasketaren egiteko. Oxigenoak suari indar gehiago ematen zion.

Ola horietan beraz burdina zuten ekoizten. Gero, baziren bertze ola batzu, burdin hori garbitzeko, bikaintzeko. Bigarren pasta gorri hartan ziren zikinkerien kentzeko bazuten 250 kiloko mailua, agoa deitua. Adorra baten ardatzaren bitartez kurriarazten zuten. Burdin haga horiek urtaraziz, laborantsa edo gerlako tresnak egiten zituzten: aizkorak, iltzeak... Ola hauek, **zeharrolak** ziren, eta XIX. mende arte iraun dute.



Haize ola baten erdiko ebakia.



Zeharrola batean, hauspoaren sistema.



## Jakes CASAUBON *Ikerlaria*

# *"Oihanak murriztu eta ingelesek burdina lantzeko moldearengatik hetsi ziren olak"*

**Nola jakiten ahal da toki batean olak izan direla?**

Toponimia, edo lekuen izenetik gidatzen gira gehienetan. Adibide baten emateko, "olagaraia" , edo "olazaharrea" atxematen baduzu, horrek erran nahi du, ola bat han berean bazela. "Olagaraia" kasuan, horrek erran nahi luke etxe horrek ola bat balukeela, bere azpiko aldean.

**Zerk eragin zuen olak desagertu izana?**

XV. mendetik goiti, zeharrolak egin zituztelarik, hasi ziren meatzeak zilatzen. Barneko harria, azalekoa baino biziki finagoa zen, harria gehiago ateratzen ahal zen ere. Ekoizpen bikainago bati esker industria muntatu zen, XVIII-XIX. mende arte iraun duena Euskal Herrian: Ainhoan, Ezpeletan, Urdazubin, Baigorrin, Bidarrain... Olak, aberats batzuen eskuetan ziren. Alta, oihan guztiak murizten baitzituzten, XVIII. mendetik goiti ola ainitz hetsi ziren, egur eskasiagatik. Gainera, XIX. mendean, ingelesek burdina lantzeko molde egokiago bat ekarri zuten, merkeagoa. Euskal Herriko burdingintza hortan gelditu zen.

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 7.100 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tlfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

**www.topagunea.com/ttipi-ttapa**
**ttipi-ttapa@topagunea.com**

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 2.400 Pta. |
| Ipar Euskal Herria | 180 Libera |
| Europa | 4.600 Pta. |
| Amerika | 16.500 Pta. |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • GAURKOTASUNEKO GAIA •

# Euskal Herriaren izenean sokatira txapelketetan?



### Euskal sokatiralariek egin beharrekoa egin dute: kiroltasun osoz jardun eta euskalduntasuna agertuta

**Joxelu ERRETEGI** *Nafarroako Herri Kirol Federazioko Lehendakaria*

9 urteotan gertutik segitu dut euskal herri kirolarien jarduna, batez ere, nafarrena. Badakit zenbat ahalegin eta saiakera egiten duten kirolariek beren maila hobetzeko, eta ahal bada txapelketak irabazteko. Halere, oso gutxik, lortzen dute sos batzuk irabaztea, erabat amateurra baita herri kirol mundua. Beharbada, sokatira izango da jarraitzaile gutxien duena Euskal Herrian; era berean, kirol bakarra da nazioarteko lehia ofiziala duena, eta mailarik gorenekoa gainera. Hemengo talde askok jasotzen du nazioarteko edozein lekutan lehian aritzeko gonbidapena. Hori guztia ongien dakiena TWIF (Nazioarteko Sokatira Federazioa) da, baina TWIFek, eta espreski Co Koren lehendakariak, badu agindu bat, zeinak dioen, Euskal Herriak ezin duela bere buruaren jabe izan, eta ondorioz, Espainiaren edo Frantziaren menpean egon behar duela. Badaki, ordea, euskal sokatira sendoa dela, eta bere baitan edukitzea komeni zaiola. Horrexegatik, bi jarrera agertzen ditu: Bata euskal tiralariei lehiatzen utzi beren hainbat ikur eta guzti, eta bestea, lotuta eduki ofizialki Espainia edo Frantzia dela jakinda. Azken urteotan egoera petraldu egin da, eta euskaldunen aurkako soka estutu egin du. Zein izan den estutze horren arrazoi? Litekeena da sokatira COIn ahalik eta azkarren sartu nahi izatea, eta ondorioz, Euskal Herria egotzi behar izatea. Baina hala balitz, zer gertatuko da Eskozia, Gales, Feroe Irlak, Jersey eta beste hainbat naziorekin? Japoniako Munduko Jokoetan gertaturikoa, noizbait gertatu behar zuen, lehendik ere makina bat antzeko liskar sortu baitzen. Aurten lehen aldiz espainiar izatea inposatu nahi izan digute, baina euskaldunok kirolari apartak izateaz gain, geure nortasuna tinkoa aldarrikatu nahi dugu eskubide osoarekin. Argi dago kirola ere tartean dela, edo pentsatu behar dugu Akitan izan diren tiralariak sentimendurik gabekoak direla; nik badakit hori ez dela horrela. Horregatik, ulergarri iruditzen zait emakumezkoen Sakanaren jarrera, eta nire aldetik babes osoa izanen du. Bestetik, badakit gogorra dela Selekzioari gertaturikoa, denok baitugu gustuko lehian aritzea aurrez lan luzea egin ondoren, urrezko domina eskuratzeko moduan egonda. Baina badakit haiek ere ez zutela onartuko podiuma igo eta espainiarrez janztea beren lorpen guztia.



### Lehendik hilzorian zegoen sokatira Euskal Herrian eta Japonen gertatutakoaren ondotik, oraindik okerrago dago

**Jexux ETXEZARRETA** *Aresoko entrenatzailea*

Nere ustez, Sakana eta Abadiñoko sokatira taldeek ez zuten Japoneko kirol ez olinpikoen Jokuetara joan behar, okerra hara joatea izan zen. Aurretik bazekizkiten baldintzak: Espainiako ordezkari gisara joango ziren, bere bandera eta himnoarekin. Guk, baldintza horietan ez gara inoiz joan eta ez genukeen parte hartuko. Gero, Sakanako neskak irabazi eta Espainiako himnoa jotzen hasi zenean, podiumetik jaitsi ziren. Horrek hautsa asko harrotu du, baina dominak ere han utzi beharko lituzkete, Espainiaren izenean irabaziak baitziren. Jendeak uste du horrekin izugarrizko aurrerapena egin duela orain Euskal Herriak eta herri kirolak, baina hori ez da horrela. Ni Nuarberekin parte hartua naiz Europa eta Munduko txapelketetan, baita joku hauetan ere, duela lau urte Finlandian. Han, urrezko domina irabazi eta TWIFen bandera altxatu eta TWIFen himnoa entzun zen, eskuetan ikurriñak genituela. Hori guk lortutakoa izan zen, guk egindako eskakizunak ziren. Beste herrialdeetako jendeak onartua zuen hori, bazekien gu ez ginela espainiarrak sentitzen. Argi dago norberak bere nortasuna duela, baina jakin behar da noiz eta nola agertu nortasun hori. Dena den, orduan esan ziguten hurrengo jokuetan Euskal Herriko tiralariak Espainiako ordezkari gisara joan beharko genuela. Duela urte batzuk olinpikoa izan zen sokatira eta berriz ere hortan saiatzen ari direla iruditzen zait. Sokatira hilzorian dagoen kirola da Euskal Herrian, atzetik ez baitago indarrik. Japonen gertatutakoaren ondotik, oraindik okerrago dago. TWIFek esan digunez, orain arte ez zegoen Espainiako Federazioa osatu nahiean omen dabiltza: Andaluzian, Asturiasen eta ba omen daude tiralari batzuk eta horiekin... Horrek heriotza ekarriko lioke Euskal Herriko sokatirari. TWIFek santzioa jarri die Euskal Herriko taldeei. Asteburu honetan, Suitzan jokatuko den Europako lur gaineko txapelketan parte hartzekoa zen Areso. Suitzako antolatzaileek borondate ona azaldu dute, baina azken finean TWIFen menpean daude eta honek nazioa Espainia dela dio. Joatekotan, Nazioarteko Federazioaren ikur eta himnoarekin joango ginen, inolaz ere Espainiako ordezkari gisara. Horregatik ez joatea erabaki dugu, nahiz eta klub bezala parte hartzeko aukera bagenuen.

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Gaiztoak eta zintzoak

Euskal Herriko gure eskualde honetan, Euskal Herria izaera bera ez dago aitortua. Gure eskualdean «Franco»ren garaian mugazainek kontrabandistak tiroz garbitzen zituzten. Herri santu honetan Francok gure arbaso afusilatuen gorpuen gainetik ezarri zuen bere «bakea», gogoratu «ministerio de propaganda» zenak nola ospatu zituen «25 años de paz». Gure eskualdean Frankok «demokratikoki» ezarritako Erregeak agintzen du, bera da frankok erabilitako armadaren agintari nagusia. Gogoratu behar baita hura ohean hil zela dena «ongi lotuta» utzirik. Harrigarria da bertzalde frankismoaren aurka lortutako garaipenen aipamena egiterakoan guztiok lubakiaren alde honetan egon nahi izana, baina tira... Gure eskualdean konstituzio espainarrak espainolak izatera behartzen gaitu eta gure lurra Espainia da, Konstituziaren 8. artikuluak modu «bakezalean» inposatuta. Gure eskualdean GALek ezker abertzaleko jendeen autoak erretzen zituen. Gure eskualdean Polizi Nazional bat esku artean zerabilen lehergailua eztanda eginda hil zen Endarlatsako kuartelean. Kuartel hori bera inplikazio zuzena eduki zuen torturapean hildako Mikel Zabalzaren kasuan. Gure Eskualdea Entzutegi Politiko militar (Audiencia Nacional) baten pean dago, Entzutegi horrek Lege Antiterrorista aplikatuz, ezker abertzaleko gazteak torturatuak eta kartzeleratuak izatea ahalbideratzen du. (Ustez kutxazain bat erretzen saiatzeagatik 14 urteko kartzela zigorra, fiskaleren eskaera, Eneko eta Xabiren kasuan). Gure eskualdean ezker abertzaleko zinigotziak atxilotu eta 5 egun inkomunikaturik kontzen dituzte. Gure eskualdean abiloketak burutzen dituztenek izen gabeko aginduak daramate, atxiloketa «a la carta» egin ahal izateko.

Aitortzarik gabeko herri honetan espainiar sasi juztiziak Euskal Herriaren alde aritzen diren hainbat herri mugimendu, desobedintzia zibileko kolektibo edo euskarairakasteko erakundeak terroristatzat hartu ditu eta 60 lagun baino gehiago enkausatuak dira 18/98 sumarioan, horietako batzuk eskualde honetako herritarrak. Bidegabekeri hauek modu baketsuan salatzeko jendeak konzetrazioak egin ohi ditu, gure eskualdeko jendea multaz josi gaitutze pankarta baten gibelean agertzeagatik (soilik Beran miloi t'erdi pzta isunetan)... Gure eskualde honetan kioskora hurbildu eta atzo erosi zenuen egunkaria edo kazeta ez dago epaile politiko militarrek komunikabideak itxi dezaketelakoz. Gure eskualde honetan kazetari bat eskausatu dute beren 12 segunduko grabazio batengatik....

Gure eskualdean ezker abertzaleko militante askok banaz bertze 15000ptza hileko gastua daukagu «trafiko» multetan. Nor dago askatasunaren aurka gure eskualde honetan???....

Norbaitek pentsa dezake hemen ez dagoela arazo politikorik eta espainako agintariek eta beren alderdiek gertatutakoaren gaineko ardurarik ez dutela?

Andoni Esparzak, Ttipa-ttaparen azkeneko alean, Uztailaren 14ean Leitzan ETAk burututako hilketa ahotan hartuta, gure herriak bizi duen errealitatearen gaineko irakurketa nahiko motza agertu zuen gure ustez. Gure eskualdean «aro berri eta oker baten hasiera marka dezakela» diozu. Gauzak ongi al zeuden hori gertatu baino lehen?

Egoerari buruz hitz egiterakoan «gaizto» eta «zintzoen» bereizketan gelditzea sinplekeri hutsa da. Konponbidea ez da etorriko errudunak bilatzeagatik irtenbideak bilatzeagatik baizik. Eta horretan batzuk hagitz argi hitz egiten dugu. 1 Euskal Herriaren aitortza 2 Euskal Herriak libre eta demokratikoki erabaki dezala.

Galdera potoloegia geratu zaigu airean ala ere: zer demontre egin behar dugu euskal herritarrok Frantziak eta Espainiak gure herria aintzat har dezaten?

**Berako Batasuna.**

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



H. Lopez
iturgintza
Kalefakzioa
Gas Instalazioak
Iturgintza industriala
Ureztatze sistemak
Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE




Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra, 01eko irailaren 10a

*«Beti irabazi nahi dut baina iaz Lizasorekin txapela galdu nuelako, amorru gehiagorekin jokatzen hasi nintzen, joan den urtekoa ahazteko». «Hasierako tantuak garrantzitsuak izanen zirela banekien eta horregatik gogor jokatu nuen hasieratik errenta lortzearren. Aurkariak markagailuan ihes egiten badu zaila da tantu horiek berreskuratzea. Banakako partidu bakarra jolastea txapelketa osoan eragozpena dela uste dut, era berean txapelduna izatearen presioa duzu» «Alturarekin 30-24 galtzen nindoala txapleketatik kanpo ikusten nuen neure burua. Alturak bere biziko partidua egin zuen, indartsu ikusi nuen, eta ni ordea nahiko gaizki nengoen. Azkenean partidua irabazi ondotik, hurrengo partiduetan konzentrazioa ez nuela galdu behar pentsatu nuen. Oso gogorra izanen zen lehenengo partiduan txapelketatik kanpo gelditzea.»*

Koteto EZKURRA
Doneztebeko pilotaria
D. Navarra 01-09-10

## • 11 GALDERA LABUR •



### Gurutze IRIBARREN *Igantziko piszinetako arduraduna*

**• Zer moduz ibili da jendea aurten piszinetan?**
Piszinetan urteroko jendea ibili da, baina ilunabarretan aunitzez gehiago.

**• Zer da ostatuan jateko gehien eskatu dizuetena?**
Plater konbinatuak eskatu dizkigute gehien bat.

**• Eta gainerakoan, piszinetan, zerk ematen dizue arazo gehien?**
Sarreran zenbait arazo izan dugu, eta arauak betearaztekoan ere bai.

**• Heldu den urtean errepikatzeko prest?**
Bai noski, ostatuan hagitz ongi egin dugu lan bertako jendearekin eta hori eskertzekoa da.

**• Nonbait aste pare bat pasatzera joateko asmoa bazenu, nora?**
Mediterraneo aldera joanen nintzateke atseden hartzera, Saloura edo.

**• Bestak ere gainean ditugu; zer ez zenuke inoiz programatik kenduko?**
Betizuak urtero ekarriko nituzke.

**• Eta zerbait gehitu behar bazenio?**
Goizak gehixeago beteko nituzke.

**• Bestak, gauez ala egunez?**
Bietaz gozatzea gustatzen zait, baina haurrak ditugunok tenorez erretiratu behar izaten dugu.

**• Eta otorduak, norberak prestatuak ala mahaitik mugitu gabe?**
Aukeran bigarrena dudarik gabe, baina...

**• Bestak alde batera utzita, zerbaiten falta sumatzen duzu herrian?**
Garbitasun aldetik gehiago egiten ahal litzatekela uste dut.

**• Udazkena omen da hemen urtarorik politena. Zer diozu?**
Niri ere gehien gustatzen zaidana da. Ingurua zoragarria egoten da.












NATURA

# Artikutzaren etorkizunaz aritu dira Iruñeko Gobernuko eta Donostiako Udaleko ordezkariak

Irailaren 11n egin zuten bilera Nafarroako hiriburuan

**ttipi-ttapa**

Javier Marcotegui, Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza departamenduko kontseilaria eta Javier Urbistondo eta Carlos Sancho, Donostiako udaleko PPko zinegotziak irailaren 11n bildu ziren Iruñean, Artikutzaren etorkizunaz hitzegiteko. Jakina denez, Artikutza Donostia Udalaren jabetza da, nahiz eta Goizuetako lurretan kokatua egon. Donostiako bi zinegotziek, udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanean «aro berri bat zabaltzeko» asmoz joan ziren Iruñera, «bi erakundeen arteko elkarlana bultzatzeko eta Artikutzak ingurumenarendako duen balioari eusteko».



ARTXIBOKOA

**Gaur egun, egunero hirurogei lagun baino gehiago ezin dira sartu Artikutzara. Donostiako Udalak kopuru hori handitu nahi du.**

### Eguneko bisitari kopurua handitu

Gaur egun, gehienez 60 lagun sartzen ahal dira egunean Artikutzan, aitzinetik baimena eskatuz Donostiako Udalean. Udalak ez luke begi txarrez ikusiko kopuru hori handitzea, beti ere Nafarroako Gobernuarekin akordio batzuetara ailegatuz gero, ikasleendako ingurumen hezkuntza edo ikerketa programetan, adibidez. Kontserbazio plangintza edo oihan hobetze lanetan ere lanean hasteko asmoa dute. Aurrerago eztabaidatu beharreko kontuen artean, Artikutzarako erabilera eta gestio plangintza baten idaztea egonen litzateke. Bi zinegotziek adierazi zutenez, Donostiako Udalak Artikutzan saneamendu lanak eginen ditu abudo.

Marcoteguik begi onez ikusi ditu Donostiako Udalaren proposamenak, baina garrantzia eman nahi dio Artikutza inguruko herriek ematen dioten erabilerari eta batez ere, Goizuetako Udalak gai honi buruz duen iritziari.

KULTURA



# Iruñeko Marta Loredok irabazi du Bertizko Margo lehiaketa

3 milioi pezetako saria eskuratu du

**ttipi-ttapa**



Marta Loredo Olaiz, 28 urteko iruñarrak irabazi du Bertizko Natur Parkearen lehen margo lehiaketa «Descubriendo Bertiz» taula gainean egindako olio-lanarekin, honela 3 milioi pezetako saria sakeleratuz. Epaimahaiaren erabakiaz gain, uztail, abuztu eta irail hasieran parkea bisitatu dutenen iritzia ere kontuan hartu da saria ematerakoan. Guzira 208 margolan aurkeztu ziren lehiaketara honetara eta horietatik 27 aukeratu ziren erakusketan parte hartzeko. Azken hauetatik bi bakarrik ziren eskualdeko margolariek egindakoak: Garbiñe Larralde Urkijo lesakarra eta Adrian Labadie etxalartarrarenak.

Iriarte-Echandi, s.l.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerrak
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

616 513 491
PITTI
ESKABAZIOAK

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735

BERA

# Argazki eta musika instalazioa paratuko dute Herriko Etxean

Ortziral eta larunbat honetan irekiko da «Ertz-leihoa» erakusketa

**Asier GOGORTZA**

Ertz-Leihoa izena du asteburu honetan Berako Herriko Etxean ikusgai eta entzungai izanen den argazki eta musika instalazioak. Alde batetik, Jorge Llorella eta Asier Gogortzaren argazkiak ikusi ahal izanen dira, eta bertzetik Mikel Etxegarai, Xabier Erkizia eta Francisco Lopez musikarien lanak ere aditu ahalko dira. Azken musikari hori orain dela bi urteko Ertz jaialdian parte hartu zuelako eginen zaizue ezaguna beharbada.

Erran behar da erakusketa arratseko 9etan irekiko dela bi egunetan eta sarrera dohainik izanen dela.



Argazkia: Rakel

**Gustora ageri da Antonio Mujika, Agerra auzoan duen baratzetik ateratako 1,8 kiloko tomatearekin. Alejandro Zubieta lesakarrak eman zion landarea eta ale gutti batzuk bertzerik eman ez baditu ere, horiek ederrak dira. Eskuetan duena ederrena, noski!**

FLASH

### Labiaga ikastola

DBHko adarrerako dirulaguntza ukatu egin dio Nafarroako Gobernuak Labiaga ikastolari. Bigarren Hezkuntzako eskolak emateko legeztatu gabeko zentrua dela argudiatu dute.

### Waterpolo taldea

Irailaren 8an Iruñeko Gelbentzu igerilekuan jokatutako Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartu zuen Gure Txokoako waterpolo taldeak. Lehen bi partiduak galdu arren hirugarrenean 16-0 irabazi zioten Eskuna taldeari. 6 taldetik 5. egin zuten beratarrek. Ondoko jokalariek osatu zuten taldea: Gurutze eta Asier Andueza, Mikel Morcillo, Intz Iriarte, Unai Rodriguez, Julen eta Maialen Jiménez, Jokin Iantzi eta Maitane Erdozain beratarrak eta Isabel Etxebeste lesakarra.

### Zine emanaldiak

Ortzegun eta ortziral honetan Bertizko Zinemaldiko filme laburrak egonen dira ikusgai Kultur Etxean. Ortzegunean B multzoko 6 laburmetraiak proiektatuko dituzte arratsaldeko 7,30etatik aitzinera, eta ortziralean A multzoko bertze 7 laburmetraia. Larunbat arratsaldeko 7etan eginen da sari banaketa Kultur Etxean, eta Lamixine antzerki taldekoek ikuskizun ttiki bat prestatu dute ekitaldia animatzeko.

DANTZAK

## *VII. Dantzari Ttiki Eguna antolatu du Gure Txokoak irailaren 23rako*



Gure Txokoa talde antolatzailearekin batera Euskal Herriko bertze lau dantza talde bilduko dira igande honetan Beran. Lezoko, Hendaiako, Zaldibiko eta Lizarrako gazteen dantza taldeak auzoz-auzo ibiliko dira goizean, eta eguerdiko 12,30etan Altzateko karrikan elkartuko dira agintariena eta agurra dantzatzera. Berako dantzarien etxeetan bazkaldu ondotik arratsaldeko 5etan Eztegara pilotalekuan jaialdia eskainiko dute talde guziek batera.

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA



ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

BAR Botxo OSTATUA
☎ 948630052 • Zalain • BERA

## LESAKA

# 204 ikaslek hasi dute ikasturtea herriko bi ikastetxeetan

118 Irain eskolan hasi dira eta 86 Tantirumairu ikastolan

**Aitor AROTZENA**

Berrehun eta lau ikaslek hasi zuten irailaren 6an 2001-2002 ikasturtea herriko Irain eskola eta Tantirumairu ikastolan.

Ikastetxeei dagokienez, 118 Irain eskolan hasi dira (joan den urtean baino lau gehiago) eta 86 Tantirumairu ikastolan (iazko ikasturtean baino bi guttiago). Erran beharrik ez da, noski, azken urteetan bezala ikasle guziak euskara hutsean ariko direla, D ereduan.



Jone FAGOAGAk utzia

**Irailaren 1 eta 2an Irungo San Martzial tiro zelaian jokatutako Espainiako Skeet Olinpiko Kopa irabaziz borobildu du denboraldia Jone Fagoaga lesakarrak. Zaragozako emakume batekin berdindua akautu zuen, baina desenpatean bi plateren aldea atera zion Jonek. Txapelketa, berriki hildako eta bere ehizi-lagun hainbatetan izandako Altxaferori eskaini nahi izan zion. Koparekin batera, Espainiako txapelketa eta Erregearen Kopa irabazi ditu aurten. Urria, azaroa eta abenduan konzentzazioak izanen ditu selekzioarekin.**

### 32 ikasle berri

Mailei dagokienez, ikastolan 38 ikasle izanen dituzte Haur Hezkuntzan eta 48 Lehen Hezkuntzan. Eskolan, berriz, 46 neska-mutiko dituzte Haur Hezkuntzan eta 72 Lehen Hezkuntzan. Bi eta hiru urte arteko 32 neska-mutiko hasiko dira ikasten aurten, 17 Irainen eta 15 Tantirumairun.

Tantirumairu ikastolan ez da irakasle berririk izanen eta zuzendaritzan Ane Elosegik segituko du. Irain eskolan, aldiz, zenbait irakasle joan eta bertze batzuk etorri dira. Patxi Oteiza zuzendariak azaldu digunez, *«hiru irakasle berri izanen ditugu, Ainhoa Fraile, Nekane Lasaga eta Ixen Bilbao. Horretaz gain, orientatzaile eta pedagoga lana Begoña Ortegak beteko du»*.

Irailean goizez bakarrik izanen dituzte klaseak bai ikastolan baita eskolan ere, baina urriaren lehenengo egunean goiz-arratsaldez hasiko dira.

## FLASH




### *Mozorro Berri kanpaina*

Urriaren 6an, arratsaldeko 5etatik aitzinera, Kukubiltxo antzerki taldearen «Txirrikiz» antzezlana ikusgai izanen da udal pilotalekuan, Mozorro Berri kanpainaren barnean.

### *Beti Gazteren lehen partida*

Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailako 2001-2002 denboraldiari ekiteko lehen partida asteburu honetan jokatuko du Beti Gazteko talde nagusiak Donostian, Muniberen kontra.

## XAKEA

### *Pablo Glavina argentinarrak irabazi du VIII. Lesakako Hiria txapelketa*

Argentinako Pablo Glavinak irabazi zuen irailaren 1ean jokatutako Lesakako Hiria Nazioarteko Xake txapelketa eta 70.000 pezetako saria eraman zuen. Beti Gazte elkarteak, Gipuzkoako Xake Federazioaren eta Lesakako Udalaren laguntzaz antolatutako txapelketa honetan 99 jokalarik hartu zuen parte. Bigarren Kroaziako Davor Komljenovic izan zen eta iazko irabazlea, Diego Adla argentinarra, hirugarrena izan zen. Lehen euskalduna Felix Izeta izan zen, laugarren postuan. Jubeniletan Daniel Hernandez nagusitu zen. Lehendabiziko nafarra Eduardo Burgete izan zen eta herriko jokalaririk onena Javier Oiartzabal izan zen.

Zeko Errota
Loreak eta landareak
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

ANA janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

## ETXALAR





JOSEBA OLAGARAI

**Joseba Beola eta Jon Iparragirre «Katton» gidari etxalartarrak bikain aritu ziren Usategietako laugarren Auto Igoeran.**

# Beola bigarren eta Katton laugarren Usategietako Auto Igoeran

Jende aunitz bildu zen, eguraldi txarrari aurre eginez

**Joseba eta Nerea**

Eguraldi txarra eta euria ez ziren oztopo izan irailaren 9an egin zen Usategietako laugarren Auto-igoerarako eta horren adibide izan ziren Joseba Beola eta Jon Iparragirre "Katton". Bi gidari hauek igoera bikain baten ondotik bigarren eta laugarren postuak eskuratu zituzten. 49 gidarik hartu zuten parte eta hauek izan ziren klasifikazio orokorreko denborarik onenak: Javier Azcona irabazlea (04:00,07) Joseba Beola bigarren (04:04,70) Pantxo Egozkue hirugarren (04:04,83) eta Jon Iparragirre laugarren (04:08,73). Aipatu, Joseba Genuak 13. postua eskuratu zuela. Hala ere, aurtengoan norbait azpimarratu behar izanez gero, Joseba Beola gidari gaztea izanen zen lau sari irabazi zituelakoz: klasifikazio orokorreko bigarren postua lortzeaz gain, berari eman zioten zonaldeko gidari onenaren saria, bere kategoriako lehenengo saria eta baita Junior mailako lehenbiziko saria ere. Aipatu zigunez *«ez nuen lau sari irabaztea espero. Hasteko eta behin, euriarengatik: karretera bustia egoteak zailtasun handia ematen baitu. Eta gero, Azconaren mailako gidari onak zeudelako, eta nik ez dut horien esperientziarik. Sorpresa bat izan da, eta hagitz konten nago»*. Erran dezakegu auto-igoera hau antolatzeko arazoak izan baziren ere, aurtengo edizioa hagitz arrakastatsua suertatu zela.

### *Urritzokietako bestak*

Joan den igandean, irailaren 16an, Urritzokietako auzotarrek beraien eguna ospatu zuten. Meza izan zuten Santa Krutz ermitan eta ondotik, 80 pertsona bildu zituen Sainduneko Zubian egin zen bazkariak eta arratsaldean herriko trikitilariek auzo bazterrak alaitu zituzten. Egun bikaina auzotar guzientzat.

## FLASH

### *Irakasle berriak Landagainen*

Antzineko alean aipatu genizuen bezala Enkarnita Duval-ek Landagain eskola utzi du. Bere partez Irungo Iñigo Aizpurua egonen da lehenbiziko zikloko ikasleekin. Maite Erasun lesakarra izanen da ingeleseko klaseak emateaz arduratuko dena eta joan den urtean herriko eskolan izan ziren Luis Mari Garzia, Kontxexi Arangoa, Mari Jose Gamio, Joxean Ortega eta Marta Orubek aurtengo ikasturtean ere Landagain eskolan segituko dute.

### *Argindarra lur azpitik Antsolokuetan*

Aurreko TTIPI-TTAPA batean azaldu genizuen bezala, etxebizitza berriak egin zituztela eta, argi-indarrarekin arazoak izan zituzten Antsolokueta auzoan. Herriko Udalak, Iberdrolak eta Etxekalay promotorak izandako tira-bira batzuen ondotik, azken honek bere gain hartu zuen argi-indarraren instalazioa: argi-indarraren hariak lur-azpitik bideratzea, hain zuzen. Modu honetan, uztailean, Telleriatik etxe berrietaraino doan bidea zulatu zuten, azpitik haria sartzeko.

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

IGANTZI

# Xabier Akerretak irabazi zuen Mendi-bizikleta ibilaldia

Irailaren 5ean hasi zen 2001-2002 ikasturtea

Oskar TXOPERENA

Zizurko Xabier Akerreta izan zen Irailaren 9ko XI. Mendi-bizikleta Ibilaldiaren irabazlea. Ordubete pasatuxea behar izan zuen ibilbideari bi itzuli emateko. Roberto Valcarlos iruñearra zen irabazteko hautagai nagusia, baina, hasieran bizikletarekin izandako arazoengatik, bigarren sailkatzearekin konformatu behar izan zuen. Daniel Beloki orkoiendarra izan zen hirugarrena. Herritarrei dagokionez, Xabi Telletxea eta Joxe Mª Goia izan genituen azkarrenak, zazpigarren eta zortzigarren postuetan. Bertze zenbait herritar ere izan ziren irabazle kategori ttikietan: Sonia Taberna, Ibai Retegi eta Iñigo Almandoz.




Oskar TXOPERENA

**Xabier Akerreta Landabizkarretik pasatzerakoan eta sariarekin.**

### *Ikasturte berria*

Irailaren 5ean 43 haurrek hasi zuten ikasturtea eskolan. Oraindik goizez bakarrik ari dira, baina, bestak akautu bezain abudo goiz-arratsaldez hasiko dira. Hiru dira bertan jarraitzen duten irakasleak: Ana Jose Irigoien zuzendaria, Alex Sasiain, eta Joxean Ortega. Aurten etorritakoak, berriz: Maite Altxu, Iñigo Jauregi, eta Agustin Burlada aranztarra, irakasle laguntzailea izanen dena.

## Herria ezagutuz




### *Onin-Bentatxoko*

Aiestenekoborda ondotik beheiti doan bidea hartzen badugu, bortzehunen bat metro beheitiago, Bentatxo baserriarekin eginen dugu topo, Onin edo Bentatxoko errekaren ondoan.

Hasiera batean Garrotxipikoborda deitu zitzaion baserriari; ondotik, XIX. mendean, Onin edo Oniñ ere bai –paraje eta errekaren izena hartuaz–, eta gaur egun Bentatxo da ia erabiltzen den izen bakarra. XIX. mendearen hasieran egindako baserri honen lehendabiziko biztanlea Bautista de Yrisarri argina izan zen –Mª Bautista de Agesta sunbildarrarekin ezkondua–. 1866ko katastroan, berriz, Francisco Antonio Yrisarri Agestaren izenean arrautuko dugu -argina zen semea ere- eta 1900an, berriz, Bautista Miguelena Egimendikoarenean. Egimendikoen eskutan egon da orain dela urte gutti arte, gaur egungo jabeei, Eduardo Konde eta Marta Oruberi, saldu zieten arte.

1888an sute handi batek desegin zuen -"destruido por un violento incendio"- eta Herrikoetxeak eman zion Francisco Antonio Irisarriri etxea moldatzeko egurra.

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA


LESAKA

ARTEKARI
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
Bideragarritasun planak

ARANTZA

# Hogeita hemezortzi haurrek eta sei irakaslek hasi dute ikasturtea

Bi haur bakarrik sartu dira eta bi irakasle berri izanen dira

Garbiñe eta Elixabet

Irailaren 7an eman zioten hasiera eskolan 2001-2002 ikasturteari. Aurtengoan bi haur bakarrik sartuko dira. Denetara 38 haur eta sei irakasle izanen dira, hauetatik bi berriak: Josune Garmendia lesakarra eta Edurne Labaka azpeitiarra. Iraileko egunetan goizez bakarrik izanen dituzte klaseak baina urriaren lehenengo egunean goiz-arratsaldez hasiko dira. Egun horretan berean jantokia ere zabalduko da.



**Duela hamar ikasturte ateratako argazki honek agerian uzten duenez, ikasle kopuruak beheiti egin du herriko eskolan.**

### *2000. urteko udal kontuak onartu dira*

Alegaziorik aurkeztu ez denez, 2000. urteko kontuak behin betikoz onartu dira eta Nafarroako Gobernura bidaliko dira, abuztuko udal batzarrean ahobatez hartutako erabakiaren arabera.

### *Oihan probetxamendua*

Apitta eta Argatsoro 1.398 pinu eta 58 haritz amerikar enkante bidez salgai paratzea. Oihan probetxamendu honen haserako prezioa 8.966.500 pezetakoa da.

## FLASH

### *Berriemaileen agurra*

Azkeneko urteetan berri emaile lanetan Garbiñe Maiz eta Elixabet Iturria aritu dira, baina hurrengo alean bertze norbait izanen da horretaz arduratuko dena. Oraindik zehatu gabe baldin badago ere nor izanen den, lasai egon, zuen etxeetara Arantzako berriak iritsiko baitira. Bertzalde, berriemaileen partetik mileesker TTIPI-TTAPAko erredakzioko lankideei eta nola ez, Arantzako Udaletxeko idazkaria den Josetxori.

### *Maria Pilar Larretxea bake-epaile berria*

Irailean egindako bileran, Arantzako Bake Epaitegiko epaile berria izendatu du Udalak: Maria Pilar Larretxea Errandonea izanen da bake-epailea hurrengo lau urteetan. Herrian bandoa paratu ondoren, epaile lanak egiteko inor aurkeztu ez dela ikusirik Udalak zuzenean izendatu behar izan du Maria Pilar Larretxea.



ALBERGEA
JATETXEA
✆ 948 634179
ARANTZA

KATEA-BIKE
Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Karrikaberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948 631218

ttipi ttapa
✆ 948 63 11 88


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab…
Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE


BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Anezio karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

## MALERREKA



Artxibokoa
**Joaldunak prestatu beharko dira larunbatean.**

# Nafarroako Gobernuaren dekretua salatu du Mankomunitateak

«Euskaldunon aurkako eraso planifikatutzat» jo du

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Gobernuak irailaren 5eko Foru Dekretuaren bitartez eremu euskaldunean Osasunbideko plantila organikoaren zein lanpostutan behar den euskaraz jakitea zehaztu zuen. Hemendik aitzinera eremu euskaldunean euskarak merezimendu gisa zuen balorazioa kendu egin dute eta euskara bertze merezimendu bat izanen da, Europako Batasuneko gainerako hizkuntzekin batera puntuatuko dena. Gertaera honen aitzinean, Malerrekako Zerbitzu Orokorreko Mankomunitateak *«Nafarroako Gobernuaren neurri berri hauek azken urte honetan euskararen eta euskaldunon aurka gauzatzen ari den etengabeko eraso planifikatuaren barne kokatzen ditugu»* adierazi du. Gobernuaren jarrera onartezia iruditu zaio Mankomunitateari, *«herritarren zerbitzura egon beharrean eta beren eskaerei erantzun beharrean, behin eta berriz bizkarra ematen ari zaigulakoz»*.

Idatziaren arabera, *«Gobernutik eta komunikabide zenbaitetatik anitzetan tranpa egin nahi izan digute, alegia, mediku onaren eta euskaldunaren artean aukeratu beharra. Aitzitik, zera aldarrikatu nahi dugu: mediku ona izanen da medikuntzako alorra menperatzeaz gain, herritarrei behar bezalako zerbitzua emateko gai dena, hau da, bertzeak bertze, bertakoen hizkuntzan, euskaraz, harrera egiteko gai dena»*. Mankomunitatearen ustez, *«neurri berri hauekin herritar guztiak gara diskriminatuak, legez ofiziala den hizkuntza ezin dugulakoz administrazioarekiko harremanean erabili»*.

# Iturengo Joaldunen Eguna larunbat honetan

Mindegia eta Olasagastiren arteko aizkora apostua izanen da eguerdian

**Iban ISASI**

Larunbat honetan, irailak 22, ospatuko da Iturenen Joaldunen eguna. Goizeko 10etan, joaldunak eta herriko trikitilariak Ameztian baserriz baserri ibiliko dira eta eguerdian herrira jautsiko dira. Bien bitartean, herriko karriketan Berako Larrakaitz txaranga ibiliko da.

Ordu batak aldera aizkora apostu ikusgarria izanen da herriko plazan. Mikel Mindegia eta Jose Mari Olasagasti, bi txapeldun haundiak, aurrez aurre izanen dira. Mindegiak txapelketetan gehiago parte hartuko ez duela kontuan hartuz, zubietarra eta igeldoarraren arteko lehia ikusteko aukera paregabea izanen da. Aizkora saioaren ondotik, Xabier Amuriza eta Mañukorta bertsolariak ariko dira. Arratsaldeko 3etan bazkaria izanen da herriko etxeko sabaian. Eguna giro ederrean akitzeko, arratsaldez eta gauez dantzaldia izanen da Mikel Salaberriren eskutik.

### *Erreka Guraso Elkartea*

Doneztebeko Erreka Guraso elkarteak euskara irakaslea behar du gurasoendako. Klaseak arratsaldeko 3etatik 5etara izanen dira. Deitu 948 451806 tel.ra.

HORTZ KLINIKA
Dr Guy Cadillon


IMPLANTOLOGIA (20 urteko esperientzia)
ORTODONTZIA

MALERREKA

# Urrozko San Migel bestak irailaren 28tik urriaren 2ra

## Peñagarikano eta Irazu izanen dira asteleheneko bazkarian

**Ortzirala 28**

**20:00etan** altxaferoak eta ezkilak besteei hasiera emanez.
**20:30etan** ZOPAK herriko ostatuan.
**24:00etatik aurrera** dantzaldia JALISCO BAND taldearen eskutik.

**Larunbata 29**
**San Migel Eguna**

11:30etan Meza Nagusia, herriko zaindariaren ohorean. Ondoren hamaiketakoa Herriko Ostatuan. **Eguerdian eta arratsaldean** PILOTA PARTIDUAK. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JALISCO BAND taldearen eskutik.

**Igandea 30**

**13:00etan** Aizkora Apostua. MINDEGIA eta ETXEBERRIA, SENOSIAIN - OLASAGASTIren aurka. **15:00etatik 19:00etara** HAUR PARKEA. **Arratsaldez** dantzaldia "Joxe Anjel" akordiolariarekin

**Astelehena 1**

**11:30etan** MUS txapelketaren hasiera.
**14:00etan** HERRI BAZKARIA: Bertsolariak: Anjel M. PEÑAGARIKANO eta Jexux M. IRAZU. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia "Joxe Anjel" akordiolariarekin.

**Asteartea 2**

**11:30etan** MUS txapelketaren bukaera.
**17:00etan** HAUR JOKOAK. Ondoren GORRITIren animalien erakusketa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia Mikel SALABERRI akordiolariarekin.







MAIXUX ALDABE ETA MARI JOSE LARRAJOZEK UTZIAK.

**Argazki hauek badituzte urte batzuk. Sanmigel bestetan egindako aizkora apostua ageri da. Aizkolaria lanean eta sari banaketaren ondotik. Beheitian, ahari apostua.**

# Hainbat ikastaro antolatu ditu Ezpelura Emakume Elkarteak

ttipi-ttapa

Malerrekako Ezpelura Emakume Elkarteak Nafarroako Kutxaren babesean antolatutako ikastaroetan izena emateko epea ortziralean, irailaren 21ean, akituko da. Azken urteetan bezala, ikastaro xorta ederra prestatu du Ezpelurak. Tapizgintza ikastaroak 60 orduko iraupena izanen du. Ezpelurako bazkideek 20.000 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek mila duro gehiago. Areto-dantza ikastaroan 24 ordu emanen dituzte. Hilabetean 5.000 pezeta ordaindu behar dute bazkideek eta 6.000 bazkide ez direnek. Jostungintza ikastaroak 60 ordu izanen ditu. 10.000 pezeta ordainduko dute bazkideek eta 15.000 bazkide ez direnek. Altzarien zaharberritzean, azkenik, 60 ordu izanen dira. Bazkideek 15.000 eta bazkide ez direnek 20.000 pezeta ordainduko dituzte. Megaplan, Club 10, Club 10 Basic eta Edad de Oro kontuen titularrek, pertsona eta ikastaro bakoitzeko 1.000 pezetako dirulaguntza izanen dute. Izen ematea Doneztebeko Nafarroako Kutxan egin behar da.

Ikastaroen hasiera, irailaren 26an Azkarretako baxuan eginen den bileran zehaztuko da.



## Igandea 23

**16:30etan** XXII. Artzain Zakur Lehiaketa Meakaundiko zelaian.

## Ortzeguna 27

**20:00etan** Txupinazoa eta ezkil jotzea Larrakaitz txarangak eta txanpainak lagundurik. Ondotik karrika buelta Kankailu eta Buruhaundiekin. Gero, Peñen Afaria. **24:00etatik** aitzinera Dantzaldia MINDEGIA TRIKI DANTZ taldearekin.

## Ortzirala 28

### San Migel Bezpera

**9:00etan** Gosaria Ziobi mendian. **9:30etan** Plater Tiraketa. **10:30etan** Karrika buelta. **12:00etan** Pilota partiduak (haurrak). **16:00etan** Mus eta Partxis txapelketa. **19:00etan** Betizuak. **22:00etan** Muxikoak. **24:00etatik aitzinera** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

## Larunbata 29

### San Migel Eguna

**10:30etan** Karrikaz karrika buelta herriko txistulari eta dantzariekin. **11:00etan** Meza Nagusia herriko Abesbatzak kantatua. **12:00etan** Soka Dantza. **17:00etan** Igantziko dantzarien emanaldia. **18:30etan** herri kirolak: 2. mailako arpana txapelketaren finala eta proba konbinatuak. **24:00etatik aitzinera** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Egun guzian LARRAKAITZ txaranga ibiliko da.


IRUGLAS, S.L.
GRABADOS
MARMOLAK ETA GRANITOAK






- Hileta artea
- Era guzietako letrak eta marrazkiak grabatzen dira
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Ispiluak, kristalak eta zeramika grabatuak



Fraineko bidea
✆ 948 637 412
IGANTZI

## Igandea 30
### Ezkonduen Eguna

**10:30etan** Karrika buelta, Gaitero, kankailu eta buruhaundiekin. **12:00etan** Pilota partiduak. Jubenilak: Aranibar-Etxegarai / Elizalde-Arraztoa. Helduak: Cerezo-Iriarte / Zubieta-Uharte. **18:00etan** Betizuak. **20:00etan** Bertso saioa: Amets Arzallus, Xabier Amuriza, Xabier Legarreta «Arano» eta Amaia Agirre. Gero, Ezkonduen Afaria. **21:00etatik 22:00etara eta 24:00etatik aitzinera** Dantzaldia EGAN taldearekin.

## Astelehena 1
### Haurraren Eguna

Egun guzian haurrentzat jokoak eta Gaztelu Haizatuak izanen dira. **10:30etan** Karrika buelta. **12:00etan** Herri Poteoa. **14:30etan** Herri Bazkaria, Xebastian LIZASO eta Andoni EGAÑA bertsolariekin. Ondotik LARRAKAITZ txaranga. **20:00etatik 22:00etara eta 24:00etatik aitzinera**



HAURREN, GAZTEEN ETA AFIZIONATUEN PILOTA PARTIDUEK IGANTZIKO PILOTAZALEEN GOSEA ASETZEN DUTE. SAN MIGEL EGUNEAN IZANEN DEN HERRI KIROL JAIALDIAREKIN BATERA (HURRENGO ORRIALDEKO ARGAZKIAN, JOAN DEN URTEAN HERRITARREN ARTEKO SAIOA), BESTETAKO KIROL TARTEA EDERKI BETEKO DA.
AITZINEKO ORRIALDEAN, HAURREN EGUNEAN, ZEZEN MEKANIKOA ERRENDITZEKO EGINAHALETAN. AURTEN ERE IZANEN DA GISAKO IKUSKIZUNIK.
ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

JOSE AGERRE
PINTURA LANAK
• Fatxadak garbitu eta pintatu
• Kanpo eta barneko pinturak
• Papera lanak
• Barnizatzeak
• Gotelé
• Moketa eta zintasol
✆ 610 22 15 28 • 948 637957 • IGANTZIKO BENTAK

Besta ederrak pasa!
TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
Tel. 948 637 460
31770 Lesaka (NAVARRA)

BI-BIDE
ostatu
janaridenda
BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU
Tfnoa: 948 63 72 78
IGANTZI

JATETXEA
LA VILLA
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu
Tfnoa: 948 63 72 90 • IGANTZI

IGANTZI
OSTATUA
JATETXEA
HOSTALA
Ongi pasatu bestak!
Karrika Nagusia • Telefonoa: 948 63 75 02





HERRIKO DANTZARI GAZTETXOEK URTE OSOAN IKASITAKOA ESKAINTZEKO AUKERA PAREGABEA DUTE SAN MIGEL BESTE-TAN.
ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**MARISOL ILEAPAINDEGIA**
Karrika Nagusia 57 · IGANTZI
Tel.: 948 637 763 · 948 637 275
besta onak pasa itzazue

**Jose Canabal**
Instalazio elektrikoak orokorrean
ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAK
☎ 666 57 58 99 - 948 637 541
IGANTZI

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK
*Klase guzietako aseguruak herrian bertan!*
Oskar Txoperena
Baratzondo 1
**IGANTZI**
Tel.Faxa: 948 637236
Mug.: 610 507579

BERRIZKUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948627572 • Faxa: 948637313

**ATM S.A.**
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.
**Igantziko Bentak**
**✆ 948 63 74 11**
- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaiak.
- Mantenu rodilloak.

**OKILA**
zurgindegia
*Tarimak, ateak, leihoak, eskailerak...*
*Obretako lanak orokorrean*
*Lander Sein - Mikel Arburua*
*Piedade gaina z/g • 31790 Igantzi*
☎ 948 637 249

zure herriko berriak egunero
Emisioa:
arratsaldeko 5etan
Errepikapenak:
goizeko 11etan
eguerdiko 1etan
arratsaldeko 5etan
ttipi-ttapa telebista

Diseinu eta publizitate tailerra
Taller de diseño y publicidad
bertz IRUDI




*Igantziko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu*

**Besta Zoriontsuak!**

NAFARROAKO KUTXA





*Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue*
*Igantziar eta bisitari guziei*

GOIZUETA

# Goiko-Iturrik falta zuen osagarria

## 1890ean egindako labaderoa bilatu dute lar eta lohi artean





**Esteban AROTZENA**

Herriko Etxeko akta liburu batek dioenez, 1890. urteko azaroaren 16an enkantera atera zuen Udalak Zibolan eta gaur egun Goiko-Iturri izenaz ezagutzen den lekuetan bi labadero publiko berri eraikitzeko obra. Lanen aurrekontua 95 pezetakoa zen.

Jokin Loiarte zinegotzia, honen berri jakin bezain pronto, ikerketa lanean hasi zen. Honela, nondik edo handik ikasi zuen Zibolakoa urak eraman zuela egin eta handik urte gutxira, baita Goiko-Iturrikoa nontsu aurki zitekeen ere. Berehala, garbiketa lanari ekin zion, baina ez bakarrik, ikaragarrizko laguntza eman baitzion lehenengo egunetik, Yandeneko Santi Loiartek. Bete-betean asmatu zutenaren aztarna izan zuten abudo xamar, baina oraindik lan haundia zegoen aurrean. Halere, eguna joan eta eguna etorri, eta ehundaka kilo harri, lohi eta lar garbitu ondoren, begibistan gelditu da orain dela 111 urte egindako labaderoa.

Lehendik ere, ur ederra emateaz gain, herriko lekurik atseginena zen Goiko-Iturri. Orain aitzaki bat gehiago badaukagu herritarrok, bertan une gozo batzuk igarotzeko.

ARESO

# Sokatira taldeak Europako txapelketara ez joatea erabaki du

## Espainiako selekzioa ez du ordezkatu nahi



ARTXIBOKOA

**Urte osoan egindako lana ezin izango dute erakutsi herriko tiralariek Europako txapelketan. Espainiako koloreak eraman baino nahiago izan dute etxean gelditu.**

**Juana Mari SAIZAR**

Azken aldian bezalaxe, sokatira taldea albiste dugu. Suitzan Europako txapelketan ez du parte hartuko ez klub ezta nazio mailan ere. 560 kiloko kategorian parte hartu behar zuen, Euskal Herriko txapeldun izan ondotik. Sakanako neskek egindako *«trebeziaren»* ondorioa da hau, Xabier Arraras tiralariararen esanetan. TWIFek baldintza batzuk jarri ditu, arropa, kolore, ereserki eta banderen gain, nazio mailan parte hartzekotan. Denak bildu ondoren, eta eztabaidatu eta gero, erabakia ezezkoa izan da. Denbora gutxi izan dute dena ongi aztertzeko eta erabakia presazkoa izan da. Taldea lur jota dago eta oraingoz hemen utzi beharko dute aurtengo denboraldia, lur gainean. Goma gainekoa, dena den, itxaropentsu hasteko asmoarekin daude. Aupa eta aurrera!

### *Urbanizazio lanak*

Etxebizitzaren U-1 ingurua urbanizatzeko lanak urte hau bukatu baino lehen eginak egon behar dira. Lan hauek Pagozelai-Goizabal enpresak egingo ditu, enlante publikoa egin ondotik.

### *Hogei ikasle eskolan*

Ikasturte berria hasi da eta lau ume gutxiago izango dira aurten herriko eskolan, hogei guzira. Seiko talde bat DBHra joan dira Leitzara eta hiru urteko bi ume hasi dira.

LEITZA

# Ia 600 kilo olio zikin bildu dira martxotik abuztura herrian

## Nafarroa Oinezen lan egiteko laguntzaileak behar dira Sartagudan

Joseba AZPIROZ

Jadanik badira olio erabiliaren bilketa zerbitzuaren lehenengo sei hilabeteen emaitzak. Dakizuenez etxeko olio zikina jasotzeko zerbitzua martxoan hasi zen lanean eta hilero azken ostiraletan plazan jartzen den postu batean biltzen da erabilitako olio hori. Hemendik aurrera arratsaldez furgoneta herrian barna ibiliko da olioa bilduz. Ondoko koadroan ageri dira lehendabiziko sei hilabete hauetako emaitzak, hau da, hilabete bakoitzean olioa eraman duten pertsona kopurua eta hilabetero bildu den olio litro kopurua. Maiatza izan zen gehien bildu zen hilabetea eta uda garaian, behera egin du.



ARTXIBOKOA

Lehendabiziko sei hilabeteetan emaitza ona izan du olio erabilia biltzeko kanpainak, 595 litro bildu baitira.

OLIO ERABILIAREN BILKETA

| HILABETEA | PERTSONAK | OLIO LITROAK |
|---|---|---|
| MARTXOA | 50 | 50 |
| APIRILA | 82 | 120 |
| MAIATZA | 93 | 150 |
| EKAINA | 86 | 100 |
| UZTAILA | 69 | 75 |
| ABUZTUA | 57 | 100 |

### Podologoa Udaletxeko lehen solairuan

Udaletxeko lehen solairuan, orain gutxi arte postalgoa egon den gelan, hemendik aurrera podologo batek bere zerbitzuak eskainiko ditu. Irailean, 29an etorriko da eta urrian, 20an eta 27an.

### Nafarroa Oinezen lan egiteko laguntzaileak

Alkateak bando bidez jakinarazi duenez, Udalbiltzak ezagutarazi du Sartaguda eta Lodosan ospatuko den Nafarroa Oinezen egun berean eta bezperan lan egiteko jendea behar da. Horretarako prest egonez gero, 669552096 telefono zenbakira deitu beharko da eta Joseanengatik galdetu.




Aurten Sartaguda eta Lodosan eginen den Nafarroa Oinezen logotipoa. Laguntzaileak behar dira lanean aritzeko bezperan eta egun berean.

FLASH

### Bost pisten hobetze lanak

Gorritz Eraikuntzak SL enpresak eginen ditu Erroile, Sarasain, Itzaire, Ibarla eta Erroizteko pista edo basabideen hobekuntza lanak 9.464.203 pezetatan.

### Egur loteen zozketa

Egur loteen zozketa egin berria du Udalak. Aurten 37 lote markatu dira. Dakizuenez, lotearen egun batez auzolana egin behar izaten da.

### Gripearen kontrako txertaldia

Osasun etxetik jakinarazi digute aurtengo gripearen kontrako txertaldia urriaren 1etik azaroaren 5a arte izanen dela. Areson, berriz, kontsultorioan egingo da, urriaren 4an eta 25ean.

manelsa
elektrizitate industriala
Instalazio eta muntaia elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

BAZTAN

# XVII. Nafarroako Nekazarien Eguna antolatu du UAGNk

Elizondon Irailaren 23an, igandean, hainbat ekitaldi izanen dira.

Rakel GOÑI

UAGN nekazarien sindikatuak XVII. Nafarroako Nekazarien Eguna antolatu du irailaren 23an Elizondon. Orain arte erriberako herriren bat hautatzen zen besta hau ospatzeko, aurten ordea abeltzainen munduan murgildu nahirik eta baita Nafarroako nekazaritzak dituen beste ezaugarriak erakutsi nahirik Baztan aukeratu du UAGNk. «Nekazal mundu bizia eta etorkizuna nahi dugu» lema izanen du egunak. Elizondoko elizan meza izanen da. Ondotik Txaranga arituko da karriketan barna. Ardi, behi eta zaldien erakusketa izanen da goiz-goizetik merkatuko zelaian. Baztango artisauek bere lanak jendaurrean egingo dituzte toki berean. 2.30etan zikiroa izanen da frontoian Zugarramurdiko sukaldariek egina. Nahi duenak egun berean ere txartelak erosi ahal izanen ditu. Bazkalondoan joten txapelketa ospatuko da eta Catamaran taldeak besta alaituko du. Nafarroako Herri Kirol lehiaketaren finala izanen da egun berean. Bazkalondoan ere UAGNko lehendakariak, pasa den urte gogorraren balantzea eginen du. Nafarroa osoko nekazariak bestara hurbiltzea espero da.


ARTXIBOA

**Elizondoko feriak. Behien salmenta Merkatuko Zelaian**

## FLASH

### *Ehoziri lanen erakusketa*

Iaz ehoziri (bolillos) tailerrean egindako lanak ikusgai daude Arizkunenea kultur etxean Irailaren 29 bitarte. Lan ederrak aurkeztu dizkigute ehoziri lanen taldekoak Tere Bahilloren zuzendaritzapean. Aurten ere urritik aitzin ehoziri ikastaroa izanen da Elbeten, eta nahi duenak izena eman dezake 948 581 131 telefonoan.

### *"Nafarroa etnografikoa" erakusketa ibiltaria*

Hilabete bukaerarte Arizkunenea kultur etxean Nafarroa Etnografikoa, iragana gogoan erakusketa zabalik egonen da. "Julio Caro Baroja" museo etnologikoa da antolatzailea.


ISABEL ALEMAN(?) UTZIA

**Aurten ere giro ederra izanen da Amaiurko errebestetako zikiroan.**

ERREBESTAK

### *Amaiur eta Arizkunen herritarren artean errebesta egunak ospatuko dituzte*

Amaiurko errebestak irailaren 21 eta 22an ospatuko dira. Urtero legez herriko bestak antolatzen aritu direnak, egun hauetaz gozatzeko aukera izanen dute merezimendu osoz. Ortziralean, irailaren 21ean futbol partidua izanen da Zubi Punta eta Gaztelu taldeen artean. Ondotik herri afaria izanen da Gaztelu Elkartean, gaueko 12etatik aitzin martxa izanen da gaineko ostatuan. Larunbatean 12etan mus partida eta hameketakoa, 2etan zikiroa eta atsaldez eta gauez Gau-Bela arituko da plazan. Arizkunen irailaren 22an bazkari herrikoia ospatuko da herriko frontoian. Bixente akordeolaria izanen da bertan giroa alaitzeko. Besta seguruenik Amaiurren akituko da.


ORDOKI likoreak
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak



gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
✆ 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI



ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
✆ 948 45 20 88

BAZTAN

# Nekazalpunk eguna antolatuko da lehenengo aldiz Elizondon

## Nekazalpunk taldeak ekitaldi ugari antolatu ditu egun honetarako

Rakel GOÑI

Irailaren 29an Elizondon «Lotsagaben Iraultza, Nekazalpunk» eguna antolatu du izen bereko taldeak. Bezperan, 28an gaita poteoa izanen da. Igandean zenbait gune izanen dira herrian zehar banatuak. Produktu ekologikoen merkatua, hazi ekologikoen trukea, sendabelar eta ukenduak, haurtzaindegia, eztigintza, hezkuntza eredu alternatiboak, energia berriztagarriak, birziklapena eta drogen guneak izanen dira. Kale animazioan, txontxongiloak, malabareak, zirkoa, haurrendako jolasak, bertsolariak, gaitariak, graffitiak eta abar izanen dira. Masaje, sexualitatea eta ileapainketa tailerrak eginen dira.

Zenbait erakusketa antolatu dira presoen egoerari buruzkoak eta piriniotako autobidearena adibidez. Egunean zehar ez da musikarik faltako, Ufestuek taldea, Gartxot, Elektrotuna, txalaparta, djenbeak eta fanfarreak arituko baitira. Arratsaldeko 8 etan manifestazioa izanen da. Afari herrikoia ospatuko da ondotik eta eguna akitzeko gau pasa izanen da.

Nekazalpunk taldeak kapitalismo basa salatu nahi du egun hau antolatuz. Etorkizunik ba ote den galdetzen diote antolatzaileek bere buruari. Halere duten bizi gogo eta indarraren erakusgarri izanen da nekalzalpunk besta, sormen eta irudimenez betetako eguna, *«amesten duten geroaren adinekoa»*.




**Nekazalpunk besta eta errebindikazio eguna iragartzen duen kartela**

### *Hiltegiaren itxiera?*

Pasa den hilabetean albaiteroek egindako ikuskapenen ondotik, Baztango Hiltegian konpondu beharreko oker ugari zehaztu zituzten. Baztango Udalak oraindik ez ditu konponketak hasi eta iturri ez ofizialek diotenaren arabera litekeena da azaroaren 1ean hiltegia ixtea. Egoera hau oso kaltegarria izanen da inguruko abeltzainentzat Iruñeraino joan beharko dutelako animaliak hiltzera. Hiltegia berriki eraiki zela kontuan hartuta kezkagarria da jadanik horrela ibili beharra. Udalak neurriak laster hartu beharko ditu, kalteak ahalik eta guttienak izan daitezen.

FLASH

### *Hirugarren mundura dirulaguntzak*

Urtero legez, Baztango Udalak aurekontuetako diru sarreren %0,7a, 3.munduan lanean dauden erakunde eta pertsonei bideratu die. Honela bada Felipe Santistebanek, Joakina Alemanek, Martin Corazzinik, Bildatzea elkarteak eta Nafarroako Udalerrien elkarteak kantitate ezberdinak jasoko dituzte euren proiektuak aurrera atera ahal izateko.

### *Javier Larralderi omenaldia*

Arkupeak Jubilatu elkarteak irailaren 28an, ortzilerian, Arizkungo Javier Larralde txistularia omenduko du. 11etan meza izanen da Arizkungo elizan. Ondotik omenaldiaren ekitaldia ospatuko da. Oroigarria, makila eta txapela jasoko du Larraldek. 13,45etan Bazkaria hasiko da Hotel Baztanen. 16,30etatik 18,45etara dantzaldia izanen da.

ARROPA DENDA
FANTXIKE
Gazteendako
era guzietako
arropa
Lanerako arropa



AZKAIN

# Ikasleak Elkartea deseginen da ez badu zuzendaririk lortzen

## Dantza taldeak SOS deia egin du azken bilkuraren ondotik

**Ihintza, Angela eta Eneko**

Irailaren 8an Ikasleak taldeak bere azken bilkura egin zuen. Maialen Etxeberrik, aspalditik erran bezala, bere zuzendari kargua utzi zuen. Bazuen 30 bat urte lanean ari zela taldearentzat. Bainan bulego berria osatzeko ez da ez lehendakari, ez idazkaririk atxemana izan. Bulegorik gabe elkarte bat ez da bizitzen ahal. Huna zer mezu pasatu nahi duten:



**Ikasleak dantza taldeak lehendakari eta idazkaria behar ditu.**

*«Ikasleak SOS: dantza taldeko ikasturteak urrian hasi behar luke. Lehendakari eta idazkari berri baten beharra dugu lehen baino lehen: 0559540114. Ez bada izen berririk agertzen, Ikasleak taldea desagertuko da».*

Talde hortan 100 bat haur dira. Azkaingo dantzari gehienak talde hortan hasi dira euskal dantzen ikasten. Dantza erakasleak maiz lehengo dantzariak izaten dira eta bihotz onez ari dira eta erran behar da sekulan taldeak ez badu bere aktibitatea berriz hartzen, huts haundi bat izanen dela Azkainen bai kultura aldetik, bai gazte eta haurren arteko elkartasunaren aldetik.

## PRESOAK

### *Urruntzea ez!*

Irailaren 8an 2 pertsona hil ziren beren lagun baten ikustera joaten zirelarik Espaniako presondegi batetarat. Horren ondorioz 30 pertsona bildu ziren Azkaingo plazan Irailaren 10ean astelehenarekin: Aratz Gomezen familia, bere lagun batzu eta elkartasunez etorriak ziren pertsona batzu. Banderola bat zuten eskutan: «Eloignement = peine de mort. Euskal presoak Euskal Herrirat». Aratz Azkaindik, 500 kilometrotarat urrundua da. Bere auziaren beha ogoki da eta ondotik presondegiz aldatzeko arriskua badu. Familarentzat eta lagunentzat ez da egoera errexa 1 000 km egin behar baitira bere ikusterat joateko. Hortako galdetzen dute presondegi hurbilago bateraino hurbiltzea.






PERTSONAIA

**Pierre URANGA**

### *Elgarrekin elkarteko lehendakaria*

Aspaldi hasia nintzen Pierre Berecochea laguntzen Atletismo entrenamenduetan. Bertzenaz Angeluko elkartean ari nintzen. Nere haurrek kirola egiteko adina dutenetik Elgarrekin elkartean lizentziatuak dira, saski-baloian. Antton Larroquet ere laguntzen nuen saski-baloian. Duela urte bat hunat etorri naiz. Azkainen lizenziatuak kirola egiteko beharrezkoa zaiona atxeman behar du: toki egoki bat eta jende konpetenteak. Ardura zonbait hartu ditut: errubilarien prestakuntza fisikoa, saski-baloieko gazteak lagundu eta atletismoan ere sartua naiz. Kirol eskola muntatu nahi nuke, haurrek denetarik eginen lukete. Kirola guzietarik pixka bat jastatu behar dute, kirolariak nahi baititugu formatu. 11 urte aintzin beraz, haurrek ez dute beren kirola hautatua izanen. Orai arte haurrak biltzen ziren 5 edo 6 urtetan, kirola sailetako kopuruak segurtatzeko asmoarekin. Bainan holakotan zerbait lortzen ez duen haur batek 12 urtetan kirola osoa uzten du ez baitu bertze kirola bati jastatu.

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
✆ 948 631209

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko
Ardi Gazta
Petsenekoborda • Tfnoa: 948 450 882 • SUNBILLA

Hannetche
Artisan
GOZOTEGIA
OKINDEGIA
S.A.R.L. ETCHE ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67

SARA

# Iruñeko Andres Perez irabazle herriko bestetako lasterkaldian

## Sara Korrikak irabazi zuen taldeka

Aña Mari eta Fred

Sara Korrika atletismo elkarteak lasterketa bat antolatu du lehen aldikotz herriko bestak kari. Lasterkaldia buruilaren 8an iragan zen. Abiada arratsaldeko 5etan eman zen plazan. Korrikalariek bidea Suhalmendi barna markatua zuten, gero Ihalar eta Xarbo Errekan gaindi ibili ziren, plazara berritz ailegatzeko.

Antolatzaileak arras kontent agertu ziren, gaitzeko arrakasta lortu baitzuten 102 lagunen parte hartzearekin. Lehena errebotera ailegatu zena hiru aldiz Euskal Herriko kross txapelduna den Iruñeko Andres Perez izan zen, ibilaldia 36 minutu eta 29 segundutan burutu ondotik. Bigarrenak, Rafa Maritxalar lesakarrak, 37 minutu eta 19 segundu eman zituen ibilaldia egiteko. Horien ondotik Iñaki Lopetegi, 1999. urteko kontrabandisten lasterketaren irabazlea. Bertzalde, aipatu beharrekoa da 23 saratar lasterka ibili zirela. Ramuntxo Lamothe izan zen lehena, laugarren postuan. Lasterkari gazteena herriko Mikael Laborde, bere 15 urterekin, izan zen eta zaharrena Angeluko 73 urteko emazte bat. Taldeka, Sara Korrika izan zen lehenbizikoa, Lamotheren laugarren postuaz gain, Michel Larzabal hamargarren, Jakes Bernet hamabigarren eta Pepe Iramuno hamabosgarren izan baitziren. Lehen emaztea, Angeluko Nicole Doyambehere izan zen.





**Goitian, Andres Perez irabazlea. Beheitian, taldeka irabazle suertatu zen Sara Korrikako hiru lehendabizikoak, Ramuntxo Lamothe, Jakes Bernet eta Michel Larzabal.**

### *Ohargabean pasatu dira bestak*

Aurtengo bestak ere ohargabean pasatu dira eta jadanik heldu den urtekoeri pentsatzen hasi beharko dugu.

Usaian bezala, larunbateko kontzertu dantzaldiek arrakasta polita bildu dute, baita lasterketak ere.

Igande goizeko euriak ez du jendea izitu, eta presoen aldeko bazkaria Oihaletxepean egin da. Arratsaldeko ekitaldi gehienak, aldiz, normaltasunez egin dira atertu duelarik.

Gainerakoetan, azpimarratzekoa da Olhain ikastolak antolatu zikiro jatea jendez mukuru betea zela, eta asteazkenean herriko baserritarrek usaiako hitzordua ukan dutela primekin.

### *Erretiratuen ateraldia buruilaren 26an*

Urte guziz bezala, Sarako Herriko Etxeak erretiratuak gonbidatu ditu buruilaren 26an egingen den bidaira. Goizeko bederatziak eta erdietan partitukodira autobusak plazatik. Gero, Urdazubiko lezeak bisitatuko dituzte. Zintzur bustitzearen ondotik, Almandozen bazkalduko dute. Dantza eta kantuen ondotik, Sararat itzulikodira.

XARETA

# Gure Irratia 90,5ean entzungai

Irailaren 12tik goiti Sara, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubiko itzalguneak estali ditu Gure Irratiak, Sarako Suhalmendin jarri errepikagailuaren medioz. Egun hortatik goiti, Xaretako bizilagunek 90,5 frekuentzian entzuten ahal dute Gure Irratia. Aitzaki horrekin eta Sarako festen karietara, Gure Irratiaren estudio ibiltaria izan zen Sarako plazan, programa berezi baten hedatzeko. Mikel Etxebarria eta Lucien Etxezaharretak zuzendurik «Gure Irratia eguzkitarat» magazine emanaldiak errezibitu zituen Sara, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubiko alkate auzapezak, Besta Komitea, elkarteak, ofiziale eta komertsantak.

Gomita berezi bat zuzendua da Sarako 750 familieri, beren diru laguntza eskatuz, buru egiteko gisan errepikagailu horren jartzeak gostatu 40.000 liberei.

Bertzalde, urriaren hastapenean Pausun bertze errepikagailu bat jarri nahi du Gure Irratiak, frekuentzia berdinarekin, Hendaia, Pausu, Biriatu, Irun eta Hondarribiko itzalguneen estaltzeko, kontuan hartuz gune hortan 35.000 euskaldun badirela.

Heldu den abenduaren 24an Gure Irratiak bere 20 urteak ospatuko ditu eta pittanaka, dituen itzalguneak estaltzen ari da.

## SENPERE



STUDIO DE LA NIVELLE

**Udan besta frango izan da eta aipatzekoa da uztailaren 15ean ospatu zela hirugarren kantu zaharren kantu-bazkaria. Argazkian, Jean-Noel Bessonart, Jean-Pierre Lazkano, Frantxoa Fagoaga 'Apestei', Paxkal Mendiburu eta Dolores Fagoaga.**

# Gero eta haur gehiago eskuaraz ikasten ari da

Xerri-ttikiaren jatea izanen da Ibarrungo bestetan

Franck DOLOSOR

Buruil hastapenean eskoletarat itzuli zaizkigu gazteak. 30 urte betetzen dituen Zaldubi ikastolan iaz bezala 52 ikasle daude. San Josep eskola girixtinoak 180 haur biltzen ditu, hauetarik 60 gela elebidunetan dabiltza. Gainerat aipagarria da aurten murgiltze ikasgela ideki dela bizpahiru urtekoentzat, erran nahi baita osoki eskuaraz arituko direla.

Gan den urtean bezala bi eskola publikoek, herrikoak eta Amotzekoak 212 eta 36 gazte dituzte. Lehenean 112 gela elebidunetan dira, bigarrenean oraino ez delarik gure mintzaira erakasten nahiz eta guraso eta erakasleek galdeak egiten dituzten.

Azkenik, Saint-Christophe lizeon iaz bezalatsu 200 gazte ariko dira lanean.

Herriko gazte batzuk minutu bateko isiltasuna eta solasaldiak egin dituzte Estatu-Batuetako atentatuen ondotik.

### Ibarrungo bestak

Azken bestetarik izanen dira Ibarrungoak. Musika kontzertuak eta pilota partideetaz gain, buruilaren 28an ortziralarekin Inharrean ospatuko den afaria izanen da jende gehien bilduko duen ekitaldia.

### Antzerkia

Hazilaren 5ean astelehenarekin arratsaldeko 2etan aspaldiko partez anterkia izanen dugu herrian 'udazkeneko kulturaldia' kontseilu nagusiak urte guziz muntatzen duen festibalaren karietarat. «Le fripon divin» erdarazko antzezlana eskainiko da eta urriaren 6an Zugarramurdiko lezeetan musika elektronikoen aldi izanen da.

## ZUGARRAMURDI

# Abiadura moteltzeko seinaleak jartzea eskatu du Herriko Etxeak

Martineatik plazarainoko karrikan arrisku handia sortzen da

Margari eta Koro

Dantxarineko karretera moldatu ondotik haunditu da izigarri kotxeen abiadura, batez ere herrian sartzerakoan. Oraindik istripurik gertatu ez bada ere, arrisku handia sortzen da Martineatik plazarainoko karrikan. Hori ikusi eta Herriko Etxeak Herrilan Departamendura igorri du abiadura moteltzeko seinaleak jartzeko eskaera. Hori zerbait bada ere, baliogarriena bakoitza bereaz konturatzea izanen zen: herrian sartzerakoan azeleradorea pisatzeari utzi behar diogula.

### Urbia eta Bentetako errepideak moldatuak

Urbiatik eta bentetatik sartzen diren bi karreterak moldaketa behar beharean zeuden, zilo aunitz eta brea arras galdua zutelakoz. Herriko Etxeak Durruti Kanboko enpresari lan hori eman zion eta zorionez gan den hilabeterako moldaketa hoiek finituak ziren.

### Mediku kontsulta obretan

Mediku-kontsulta ere obretan daukagu. Orain ez dago sala bat baizik, eta horretan atenditzen dute bai medikuak bai erizainak, biak batera. Herriko Etxeak 30 metro koadro gehiago erosi ditu eta obrak finitu ondotik bakoitzak bere sala izanen du eta jendeak ez du orain bezain bat esperoan egon beharko.






HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

# EZKONTZAK

**Carlos Hugo Calvo Foronda** eta **Encarnación Sobrino Ignacio**, Irungoak Beran, abuztuaren 25ean.
**Jose Manuel Bidegain Martikorena** eta **Virginia Abadia Barroso**, Burlata eta Iruñakoa Almandozen, ekainaren 30ean.
**Igor Unanue Buenetxea** eta **Izaskun Garatea Iparrea**, Zumaiakoak Elizondon, uztailaren 14ean.
**Joaquin Zabaleta Zabaleta** eta **Oihana Zazpe Braña**, Iruñakoak Almandozen, uztailaren 28an.
**Julio Oteiza Lopez** eta **Itziar Iturriria Meoki**, Iruñakoak Elizondon, abuztuaren 4ean.
**Jose Angel Aizkorbe Iraizoz** eta **Itziar Irigoien Casado**, Iruña eta Elizondokoa, abuztuaren 25ean.
**Mikel Idoate Lorente** eta **Natalia Lopez Arregi**, Iruñekoak Elizondon, abuztuaren 25ean.
**Manuel Elizondo Iribarren** eta **Maria Trinidad Barrenetxe Lortxundi**, Lekaroz eta Arraiozkoa, irailaren 1ean.
**Roman Jose Garaikoetxea Irungarai** eta **Elena Arretxea Mitxelena**, Erratzukoa eta Iruñekoa, irailaren 1ean.
**Patxi Saez Lazkano** eta **Maria Bezunartea Barasoain**, Iruñekoak Leitzan, abuztuaren 4ean.
**Juan Ramon Santos Lemos** eta **Miren Lore Luzuriaga Badiola**, Doneztebekoak, uztailaren 21ean.
**Juan Manuel Otamendi Aranibar** eta **Izaskun Abril Olaetxea**, Berakoak, irailaren 8an.

# JAIOTZAK

**Jérémy Iñaki Bidegain**, Senpere, ekainaren 1ean.
**Elorri Errandonea**, Senpere, ekainaren 5ean.
**Joseba Halsouet**, Senpere, ekainaren 6an.
**Elhea Gerard**, Senpere, ekainaren 8an.
**Naia Christelle Dorratçague**, Senpere, ekainaren 10ean.
**Maria Seillan**, Senpere, ekainaren 14an.
**Eneka Sarria**, Senpere, ekainaren 21ean.
**Ainhoa Calero Akarreta**, Elizondokoa, abuztuaren 22an.
**Itxaso Etxenike Biguria**, Iruritakoa, abuztuaren 20an.
**Xabier Arraztoa Bikondo**, Iruritakoa, irailaren 6an.
**Aimar Sagardia Redin**, Gaztelukoa, uztailaren 20an.
**Alaitz Irigoien Juanena**, Donamariakoa, abuztuaren 27an.
**Janire Etxegia Apezetxea**, Goizuetakoa, abuztuaren 30ean.
**Aimar Zabala Bergara**, Leitzakoa, irailaren 6an.
**Maria Irigoien Telletxea**, Doneztebekoa, abuztuaren 30ean.
**Maite Mutuberria Mindegia**, Doneztebekoa, irailaren 6an.
**Eneritz Mariezkurrena Apeztegia**, Berakoa, irailaren 6an.
**Eneritz Goia Errandonea**, Berakoa, ekainaren 12an.

# HERIOTZAK

**Jean-Louis Etxeberria**, Senperekoa, apirilaren 24an.
**Martin Etxeberria**, Senperekoa, maiatzaren 1ean.
**Ernestine Amestoi-Errekart**, Senperekoa, apirilaren 30ean.
**Christian Lucien Henri André Luye-Tanet**, Senperekoa, maiatzaren 17an.
**Jean-Edouard Lagache**, Senperekoa, maiatzaren 13an.
**Edouard Zamora**, Senperekoa, maiatzaren 20an.
**Eugenia Erasun Iriarte**, Urrozkoa, irailaren 11n, 76 urte.
**Guadalupe Etxeberria Ariztia**, Elizondokoa, irailaren 3an, 94 urte.
**Genoveva Peri Mendiburu**, Zugarramurdikoa, irailaren 2an, 84 urte.
**Jesus Beola Gaztanbide**, Zugarramurdikoa, irailaren 3an, 63 urte.
**Francisca Lazkano Ubiria**, Lesakakoa, uztailaren 15ean 80 urte.
**Rosalia Elizalde Elizalde**, Eratsungoa, uztailaren 16an, 94 urte.
**José Fernandez Alvarez**, Lesakakoa, uztailaren 19an, 82 urte.
**Dolores Torvisco Gomez**, Lesakakoa, uztailaren 27an, 84 urte.
**Luis Mari Gorosabel Aristegi**, Arantzan, uztailaren 31n, 61 urte.
**Jose Maria Igoa Otxoteko**, Lesakakoa, abuztuaren 2an, 54 urte.
**Aniceta Ubiria Telletxea**, Lesakakoa, abuztuaren 2an, 83 urte.
**Pedro Angel Iragi Indabere**, Almandozkoa, abuztuaren 5ean, 79 urte.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FÚNEBRES DEL NORTE, S.L.
✆ 900 704704
FUNERARIA ZERBITZUAK
LESAKA-DONEZTEBE
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik edozein herritara trasladoak
Tfnoa 948 637404 ..................... LESAKA
Tfnoa 948 450475 ............. DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971 ..................... BAZTAN

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
✆ 948 599280 • URDAZUBI

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia: ☎ 948 580 013
ELIZONDO

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.•Baldrun, 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK


PILOTA

# Koteto Ezkurrak aisa irabazi zion Lizasori Bingo-Londreseko finala

35-14 gailendu zen Galarretan, buruz buruko seigarren txapela lortuz

Koteto Ezkurra maisutasunez nagusitu zitzaion Iñaki Lizasori irailaren 8an Galarretan jokatutako finalean, eta bera da Buruz Buruko Bingo Londres Lehiaketako txapelduna. Jaun eta jabe izan zen hasieratik eta sakez egindako hamaika tantoei esker, neurri handi batean, laster bideratu zuen partida nahi zuen bezala. Lizaso besarkatu zuen azken tantoa egin bezain pronto, eta, txapela jasotzean, malkoei ezin izan zien eutsi. Emazteari eskaini zion merezitako garaipena.

**LIZASO EZINEAN, EZKURRA BIKAIN**

Partidaren bukaeranan ederki laburbildu zuen Lizasok kantxan gertatu zena: *«Ezinezkoa izan da. Bera da onena, eta, horrela aritzen denean, ezinezkoa da hari irabaztea»*. Ezinean ibili zen Lizaso partida osoan. Sakean berak ez zuen asmatu eta errebotean ere arazo aunitz izan zuen Kotetoren pilotakadak eramateko.

Ezkurra bikain aritu zen. Hasieratik aitzinetik izan zen markagailuan, eta nahi zuen erritmoa jarri zion partidari, bere kolpe indartsuen bidez. Sakea izan zen bere armarik onena. Hameka tantu egin zituen lehen pilotakadarekin. Lizasok bakar bat ere ez. Horretaz gain, pelotеoan ere iazko txapelduna baino hobe aritu zen eta bi pareteko ikusgarriekin akitu zuen tantu bat baino gehiago. Egindako lanak merezitako saria eman zion: txapela, seigarren aldiz.



ARGAZKIA: EGUNKARIA

**Ezkurra pilota eramaten, Lizaso erne begira duela.**

Iñaki Lizasok ez zion inolako aitzakiarik jarri: *«Ez dago aitzakiarik. Koteto ni baino aunitzez gehiago izan da eta merezita irabazi du. Berak horrela jokatzen duenean zaila da irabaztea. Era guztietara probatu dut, baina denean menderatu nau. Sakearekin ongi asmatu du, eta partida hor erabaki dela uste dut»*.

Lizasok aurtengo txapelketako lehen partida zuen: *«Txapelduna nintzen, eta horrek finala bakarrik jokatzeko eskubidea ematen dit, baina ez da aitzakia»*.



## Koteto EZKURRA *Txapelduna*

### *"Txapela emaztearentzat da"*

Koteto Ezkurrak une hunkigarriak bizi izan zituen. Txapela lortu ondoren ezin izan zien negar malkoei eutsi. Bere emaztea gaixotasun larri bat gainditzen ari da, eta berari eskaini nahi izan zion garaipena. *«Bera partida ikusten egonen zen. Bolada arras txarra pasatu du, eta lortutako txapela beretzat da»*, erran zuen. Partidaren gakoa sakean egon zela ere aitortu zuen: *«Sekulako gogoarekin kantxaratu naiz, eta partida arras ona atera zait. Sakearekin asmatu egin dut, eta hortxe egon da gakoa. Piloteoan ere menderatu egin dut, eta ongi eraman dut partida»*. Dena dela, Lizasorentzat ere hitz onak izan zituen: *«Bera pilotari gogorra da. Iaz txapela lortu zuen. Gaur mendean izan dut, eta horrelakoetan zaila da zerbait egitea»*, erran zuen Doneztebeko aurrelariak. Txapeldunak ez du uste bertzeen gainetik dagoenik: *«Ez dut uste. Egia da une onean nagoela, eta hagitz gustura ari naizela pilotan. Iaz galdu egin nuen finala, eta ikusi zen niri irabaztea ere posible dela»*, adierazi zuen Ezkurrak.

FLASH

### *Gure Txokoa ongi hasi da Preferenten*

Lehen aldiz lortu duen Gipuzkoako Preferente kategoria berriari beldurra kentzeko moduko emaitza lortu zuen Gure Txokoako futbol taldeak lehen jardunaldian. Matzadan 4-0 irabazi zion Urolari eta lehen postua eskuratu zuen, Pasajes taldearekin berdindua. Ina Lasagak sartu zuen beratarren lehen gola Preferenten.

### *Zazpi Herrialdetako txapelketa*

Irailaren 8an jokatu zen Donostian Zazpi Herrialdetako herri kirol txapelketa. Gipuzkoa eta Nafarroa lehen postuan puntutan berdinduak gelditu ziren, baina gipuzkoarrek kirol gehiagotan irabaztea lortu zutenez, beraientzat izan zen txapela. Nafarroak aizkoran bakarrik lortu zuen garaipena, Donato Larretxearen bitartez. Sokatiran (Beti Gazte), koxkor biltzen (Fernando Etxegarai), ingudean (Josetxo Urrutia) eta lasto altxatzen (Xabi Sein) 2. izan ziren.

# AGENDA egunez egun

## ANTZERKIA

### ETXALAR

**Irailaren 30ean** eskola zaharrean Maskarada taldearen «Izarretako bitakora» antzezlana ikusgai, arratseko 8etatik aitzinera, Mozorro Berri kanpainaren barnean.

## ERAKUSKETAK

### BERA

**Irailaren 20 eta 21ean** «Ertz-leihoa» izeneko erakusketa Herriko Etxean. Jorge Llorella eta Asier Gogortzaren argazkiak ikusgai eta Mikel Etxegarai, Xabier Erkizia eta Francisco Lopez musikarien lanak entzungai, arratseko 9etatik aitzin.

### ELIZONDO

**Irailaren 29a bitartean** ehoziri lanen erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

## OSPAKIZUNAK

### ITUREN

**Irailaren 22an** Joaldunen Eguna. Goizean joaldunak eta trikitilariak Ameztian. Herrian Larrakaitz txaranga. Eguerdian Mindegia eta Olasagastiren arteko aizkora apostua izanen da. Ondotik, Amuriza eta Mañukorta bertsolariak. Gero, herri bazkaria eta arratsaldez eta gauez dantzaldia Mikel Salaberrirekin.

### BERA

**Irailaren 23an** VII. Dantzari Txiki Eguna antolatu du Gure Txokoa dantza taldeak. Lezo, Hendaia, Zaldibi eta Lizarrako gazteen dantza taldeak ikusgai izanen dira, Berako Gure Txokoarekin batera. Goizean karrikaz karrika eta arratsaldeko 5etan jaialdia Eztegara pilotalekuan.



## ANTZERKIA



# Ttanttakaren "Hor dago koxka" antzezlana Beran

*Ttipi-Txartela* dutenen artean 4 sarrera zozketatuko dira

Berako Kultur Etxean urriaren 6an, larunbatarekin, Ttanttaka taldeak «Hor dago koxka» antzezlana aurkeztuko du. Bortzirietako IKA euskaltegiak antolatuta eta Berako udalaren laguntzarekin, taularatzea gaueko 8etan izanen da. Ttanttaka taldea Jose Ramon Soroizek, Ane Gabaraainek, Ramon Agirrek eta Elena Irureta osatzen dute. Beran ikusiko den lana otsailan aurkeztu zen lehen aldiz eta arrakasta handia izan du Euskal Herriko aretoetan. Antzelana Quim Monzó katalunarraren "El perquè de tot plegat" lana du oinarri. Maitasunari eta bikote harremanei buruzkoa da, eta Fernando Beruesek egokitu du antzerkirako. Berues bera arituko da zuzendari lanetan Mireia Gabilondorekin batera.

### *Ttipi-txartela dutenen artean antzezlana ikusteko 4 sarreren zozketa*

Deitu **irailaren 27a** baino lehen 948 631 188 telefonora. Saridunen izenak urriaren 4an argitaratuko den *Ttipi-Ttapan* azalduko dira.




## DISKAK



**«Maren»**

**Kepa Junkera**

*ELKAR*

Kepa Junkera Bilboko trikitilariaren lan berriaren izenburua Maren da. Aurreko lanean bere sorterria omendu zuen Junkerak, eta oraingoan itsasoa izan da bere sorkuntza berriak lotu dituen haria. EMI disketxe multinazionalarekin kaleratuko du diskoa, eta bederatzigarrena izango da trikitilariaren zerrendan. Kepa Junkerak bere baitara egin nahi izan du bidaia, baina begiak beti itsasoari begira. "Itsasoak beti beste pertsona batzuk eta beste leku batzuk askatasunean ezagutzeko aukera eskaini baitit", jakinarazi du trikitilariak. Bilbao 00:00 grabatzeko luxuzko kolaboratzaile taldea izan bazuen aldamenean oraingoan ez da atzera geratu: Glen Velez, Justin Vali, Hevia, Ibon Koteron, Anton Latxa, Frederic Manoukian, Maria del Mar Bonet eta Javier Tejedor, besteak beste.

## BASERRIA

Datu iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Abuztuaren 24tik 31rako prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): kotizaziorik gabe.

**Zerri gizena**
(95-100): 248 pta/k.

**Zerramak:**
148/153 pta./kiloa, bizirik.

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 540
**1.koa** 520
**2.koa** 500
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 550
**1.koa** 530
**2.koa** 510

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 36.000 eta idixkoak 29.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 41.000 eta idixkoak 39.000 Pta.

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

**Bildotsak: Pta/k**
6-8 kilokoak: 1.275-1.325
8-10 kilokoak: 1.150-1.200

## JAKIN BEHARREKOAK



# Interneterako menpekotasuna

Interneten zabalkunde eta garapenarekin, menpekotasun kasuak agertu dira. Ikertzaileak ados jartzen ez badira ere gero eta laguntza gehiago eskatzen da, interneterako menpekotasuna gainditzeko. Internetek pertsona menperatzen du? edo edukinak (txat-ak, sexua, jokuak) dira menperatzaileak? Hori da agertzen den zalantzetariko bat.

### Sintomak

-Bizitzako ohituren aldaketa sakona, internetera konektatzeko denbora gehiago izatearren.
-Lo egiteko orduak murriztu konektatua egoteagatik.
-Gizartearekiko erlazioak urritu.
-Sarean egiten ez diren aktibitateak baztertzea.
-Konektatua egoteko gogoa handitzea.
-Lana edo ikasketak alde batera uztea.
-«Abstinentzia sindromearen» agerpena. Urduritasuna konektatua ez dagoenean, internetekin ametsak, obsesioa...

### Tratamendua

Arazo berria izanik tratamendu mota ugari daude. Halere gomendagarriena psikologoarengana joatea da tratamendu egoki eta banakakoa egin dezan.

**Interneterako menpekotasuna sendatzeko psikologoarengana joatea gomendatzen da**

Laburbilduz, adituak ados jartzen ez badira ere interneterako menpekotasuna esistitzen da. Sarearen erabilpenaren inguruko, arazoren bat duzula uste baduzu, ez ezazula ukatu eta ahalik eta lasterren laguntza eskatu.

Gomendatutako liburua: Echeburua, E. (1999) **¿Adicciones sin drogas? Las nuevas adicciones: juego, sexo, comida, compras, trabajo, internet.** Bilbao: Desclee de Brower.

Rakel AMIGO
Bortzirietako Gizarte Zerbitzua

## LIBURUAK



*XX.mendeko poesia kaierak: Omar Nabarro*
**Koldo Eizagirre**
*SUSA*

Jakina denez, Omar Nabarro, Edorta Jimenez idazleak poesian murgildu den bakoitzean eranili izan duen izengoitia da -berak idatzitako «Itsastxorien bindikapena», «Egutegi esperimentala», «Gaua zulatzen duen ahausietan» edo ta «Odoleko eskifaia» bezalako poema liburuak ditugu horren lekuko-.Koldo Izagirrek, «XX. mendeko poesia kaierak» bildumarako eginiko antologian, Omar Navarroren hogeita hamar poema eskaintzen dizkigu., Bilbo hiriaren gogortasuna zein bizipoza bere poemen oinarri dauzkan olerkari mundakar honen lanaren ezaugarri gisa.
Izagirrek berak dioenez, kresal egarri handi batean bizi den poeta dugu Omar Nabarro. Eta Bilbo espazio poetiko bezala hautatu arren, berarentzat hiri hau ez da paisaje hutsa, maitasunezko istripuen ibilbidea eta porrot kolektiboen kontzientzia ere bada.

# AGENDA
## egunez egun

### BESTAK

**IGANTZI**
**Irailaren 2tik urriaren 1era.** San Migel bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**URROTZ**
**Irailaren 28tik urriaren 2ra** San Migel bestak. Xehetasunak 16. orrian.

**AMAIUR**
**Irailaren 21 eta 22an** errebestak. Xehetasunak 19. orrian.

**ARIZKUN**
**Irailaren 22an** errebesta. Xehetasunak 19. orrian.

### OSPAKIZUNAK

**ELIZONDO**
**Irailaren 23an** XVII. Nafarroako Nekazal Eguna. Xehetasunak 19. orrian.

**ELIZONDO**
**Irailaren 29an** «Lotsagabeen Iraultza, Nekazalpunk Eguna». Xehetasunak 20. orrian.

**ARIZKUN**
**Irailaren 28an** Jabier Larralde txistulariari omenaldia eskainiko dio Arkupak elkarteak. Xehetasunak 20. orrian.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Irailaren 17tik 23ra**
Lesaka, Narbarte, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

**Irailaren 24tik 30era**
Bera, Doneztebe, Irurita eta Goizueta.

**Urriaren 1etik 7ra**
Etxalar, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

# MERKATU TTIKIA

00-34 948 63 11 88

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak



### ETXEBIZITZAK
## 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai Legia, 53 - 3. ☎ 696 753 366.

**BERA.** 79 m²ko pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 630 943.

**IGANTZI.** Pisua, garagea eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845

**BERA.** Legia karrikan pisu berria salgai. ☎ 948 631 081 (Ilunabarrean deitu)

**IRUÑA.** Unibertsitate Publikoaren ondoan pisua salgai. 105m². Prezioa: 34.000.000 ☎ 629 483 323

**LESAKA.** Pisua salgai Bittiria kalean 32. zenbakian 1go pisuan. Mobleztatua. ☎ 619 913 375

**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841
607 978 656

**ADOS**
SUNBILLA:
Azken 3 etxeak
Etxebizitza elkar atxikiak
106 m² + 50 m² garaje + lur zatia
Obrak hasiak dira
Argibideak:
✆ 948 451 841
607 978 656
Parrokia 9,
DONEZTEBE

### ETXEBIZITZAK
## 104 Errentan hartu

**BERA** pisu ttikia eta mobleztatua hartuko nuke errentan. ☎ 948 581 982

**BERA.** Pisua hartuko nuke errentan, hutsik, moblerik gabe dagoena. ☎ 652 757 774

### ETXEBIZITZAK
## 105 Etxe konpartituak

**IRUÑEA.** Bi pertsona behar dira **pisua osatzeko**. ☎ 653 733 821

**IRUÑEA. Pisua osatzeko** neska bat behar da. Unibertsitate ondoan dago pisua. ☎ 948 450 756

**BURLATA.** Pisu batean **2 logela alokatzen** dira. ☎ 696 314 174 (Arratsaldeko 7etatik aitzin)

**DONOSTIA.** Antiguo auzoan **2 neska** behar dira pisua osatzeko. ☎ 948 637 124

**DONOSTIA.** Amaran **2 neska** behar dira pisua osatzeko. Biko logela, ikasleentzako prestatua. ☎ 677 613 750

**DONOSTIA.** Antiguon **pertsona bat** behar da pisua osatzeko. Banakako logelak. ☎ 948 637 228 - 620 771 656 (Maider)

### GARAJEAK/LOKALAK
## 107 Saldu

**DONEZTEBE.** Aparanen 75 m²ko nabe pabilioia salgai, 55m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906

### GARAJEAK/LOKALAK
## 109 Errentan eman

**LEGASA.** 450m²ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491.

**LESAKA.** 95 m²ko bajera errentan emateko Bittirian. Argindarra eta ura sartuak eta tarima emana, komuna ere badu. ☎ 948 637772.

### GARAJEAK/LOKALAK
## 111 Bertzelakoak

**LESAKA. Bideo kluba** salgai. ☎ 948 637 136 - 616 451 975

**URDAZUBIko UDALA**
AYUNTAMIENTO DE URDAX

**LANDIBAR AUZOAN UR-ZIKINEN KOLEKTORE BERRIAREN OBRA**

- **Xedea:** Urdazubiko Landibar auzoan ur-zikinak biltzeko obra.
- **Esleipen modua:** Prentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- **Aurrekontua:** 17.926.851 Pta. (BEZ barne) / 107.742,54 Euro.
- **Baldintza Plegua:** interesatuen eskura egonen da Urdazubiko udal-bulegoetan eta Papeleria Rubio saltokian, Bergamin, 10 - IRUÑA.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** urriaren 1a bitarte Urdazubiko udal bulegoetan, 9etatik 14ak arte.
- **Proposamenak irekitzea:** urriaren 8an arratsaldeko 20etan.

Urdazubin, 2001.09.07

Alkate-Presidentea,
Andres Diharassarry

**BERA. Arraindegia traspasatzen** da. Prezio arras ona. Frigorifikoa, hozkailua eta abar prezioaren barne. ☎ 948 631 124

### ZERBITZUAK
## 208 Bertzelakoak

Animali-granjak edo bordak eraikitzeko eta berritzeko **proiektuak,** eta Jarduera Sailkatua lortzeko proiektuak egiten dira (**Licencia de Actividades Clasificadas**) ☎ 699 364 479

**Alicia T. Erlanz**
BEHAR DITUZUEN LAN TXIKI HORIENTZAT
OFIZIALE GUZTIAK
SERVI - LAN...
Elizagibela, 5 • DONEZTEBE
Tel. 948456183 - Fax. 948450790

arantza
Zurgindegia
José Miguel Erradonea
Klase guztietako zurgin lanak
Oiñalaxa ✆ 948-634048 - ARANTZA

### LANA
## 301 Eskariak

Elektrizista eskeintzen da lan ttikietarako. ☎ 948 638 153

**2 neska** eskeintzen dira Bera edo inguruetan lan egiteko. ☎ 627 027 462

**Neska bat** eskeintzen da **arratsaldetan** lan egiteko Bera edo inguruetan. ☎ 627 027 462

### LANA
## 302 Eskaintzak

Ikastetxeetan hainbat behar betetzeko **lan poltsa** osatzeko deialdia. Betebeharrak: euskaraz jakitea edo EGA izatea. Arloak: Plastika, informatika, musika orokorra, euskal musika, dan-




tzak, kirola, antzerkia... Sortzen Ikasbatuaz ☎ 948 221 380 • sortzen@arrakis.es

**DONOSTIA.** Gros auzoan **neska interna** behar da etxeko lanak egin eta 2 hilabeteko haurra zaintzeko. Lanean aritua eta informeak dituena. Soldata ona. ☎ 629 487 079

**DONOSTIA.** Neska bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Laguntzailea izanen du. Hileko 120.000 pezeta (aseguroa eta bi paga baita). ☎ 609 988 352 • 943 223 863 (gaueko 8etatik aitzin)

**LEITZA.** Pertsona bat behar da **tabernan** lan egiteko. ☎ 619 450 249

Donostian urritik aurrera, haurrak zaindu eta etxekolanak egiteko **emakumea** behar da. ☎ 943 450 887

Emakumea behar da tarteka **etxeko garbiketak** egiteko, Zalain auzoan. ☎ 948 387 075

**GORRAIZ.** Neska euskalduna behar da arratsaldez (4etatik 8etara) haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 948 337 211 • 659 776 924

## IRAKASKUNTZA

### 401 Eskeintzak

**Ehoziri ikastaroa** (bolillos) eginen da urrian Elbeten. Izena emateko: ☎ 948 581 131

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450311 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Expres D, Daiatsu Feroza, Nissan Terrano 3 ate, Opel Frontera TDI, Sangyong Musso, C15 D.
SUZUKIAK ETA VITARAK ALKERAN

**Trialerako motoa** salgai. Gas-Gas 370 markakoa, 97. urtekoa. 350.000 pezeta. ☎ 696 979 673

98ko **Ford Mondeo TD** salgai. Kilometro gutti ditu. ☎ 948 630 819 (lluntzean deitu)

**Peugeot 206 HDI** salgai. NA-BC. ☎ 948 637 749 (Arratsaldeko 9etatik aitzin)

KTM 250 **enduro motoa** salgai. 2000. urteko modeloa. Hobe da ikustea. ☎ 626 539 051

**Honda Civic** cupé salgai. Egoera onean dago. 1.300.000. ☎ 666 896 331

**Trail Africa-Twin** motoa salgai. 750cc, egoera onean dago. ☎ 948 631 081

**Suzuki Katana** scooter motoa salgai. 80cc. ☎ 686 488 775 (arratsaldeko 8etatik aitzin).

**Nissan Patrol**-a salgai. 6 zilindro, Turbo Diesel, 1989koa. Egoera onean dago. ☎ 610 257 467 (arratsetan)

**Suzuki Vitara** 5 atekoa **erosiko** nuke. ☎ 610 257 467 (arratsetan)

**Chrysler Voyager** 2.5TD furgoneta salgai. NA-AS, hagitz egoera onean. 2.200.000 pta. ☎ 948 637 433

**Scooter Rieju Crosser** motoa salgai. 49 cc, 17 hilabete, 840 km. Egoera hagitz onean. ☎ 948 631 384

**Fiat Fiorino** furgoneta **isotermoarekin** salgai. 1.7 TD, berria (3 urte). 70.000 km.



ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo ugariko mobleak
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak



Larunbat goiz eta arratsaldez irekia





Orain erakustoki berria. Etorri gure modeloak erosoago ikustera.

**ERAKUSKETA:** Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26 • **SALTOKIA:** Plaza Zaharra 27 •Tfnoa: **948 637780** • **NA-31780 LESAKA**





# Zertarako hotza pasa, soluzioa daukagunean

**Betiko**


Ordoki Industrialdea • **ARIZKUN**
Tfnoa.: 948 45 32 59
Faxa: 948 45 34 23
e-Posta: betikopvc@teleline.es


*BETIKOn era guzietako itxierak egiten ditugu, kolore diferentetan, baita haritza, pinua, kaoba, etab. ere.*

## 4 arrazoi on PVC jartzeko




**Zaharberritzeak obrarik gabe**

**Fabrikanteak garenez preziorik onenak eskaintzen ditugu**









*Zure behar guzietara egokitzen gara*












*Deceuninck markaren perfilak kalitaterik handienekoak dira, Aenor eta NFren zertifikatuarekin, bertzeak bertze.*

*15 urteko garantia.*

**Eskatu aurrekontua loturarik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu**